

# GENERO IKUSPEGIDUN AURREKONTUAK TOKIKO GOBERNUETAN: IKASBIDEAK, ERRONKAK ETA ORIENTAZIOAK

Bolivia eta Euskadi



# LABURPENA

Azken hamarkadan muturreko pobrezia murrizten egin diren aurrerapenak garrantzitsuak izanik ere, OXFAMen datuek diotenez, ezberdintasuna areagotzen ari da mundu osoan. Urtea joan eta urtea etorri, aberatsen eta pobreen arteko zuloa gero eta handiagoa da, bai Iparraldekoak deitu ohi ditugun herrialdeetan eta baita Hegoaldekoetan ere. Fenomeno horren esplikabideak kausa asko ditu baina, zalantzarik gabe, merkataritza librean oinarritutako eredu ekonomikoak, babesgabetasun gero eta nabarmenagoak eta kapitalaren gehiegikerien aurrean gobernuak azaltzen duten interbentzionismo motelegiak ahalbidetu du krisi-egoera sor dadila pertsonen, komunitateen eta egun desagertze bidean aurkitzen diren baliabide naturalen bizikidetzaren harmoniatsuan.

Bolivia nabarmendu da eskualde latino-amerikarrean azken hamar urte hauetan gizarte-agendaren sustapenaren eredu izaten Latinoamerikan. MASen gobernupean, 2006az geroztik, erreforma politiko eta ekonomikoak egin dira, herrialdean nagusi izan zen eredu neoliberalak gainditu eta Estatua birfundatzea helburu zela beti ere.

Eraldaketa ekonomiko eta sozialak berrikuntza garrantzitsuak erakarri zituen gizarteratzearen alorrean, eta horien ondorio da erdi-mailako klase edo jende-taldeak ugaltu izana, eta horrek bazterketa eta nahikunde berriak sorrarazi ditu. Sen onaren mugari diren nahikunde berrien artean identitateak eginkizun funtsezkoa dute eta aurrerapen- eta modernotasun-nahiak uztartzen dituzte kontsumo kultural zein ez-kultural berrieekin, eta zerbitzu publikoen kalitatearekiko atsegintasunarekin.

Bestalde, genero-ezberdintasunak iraun egin du urte hauetan guztietan Andeetako herrialdean. Horrelako ezberdintasunen oinarria patriarkatuan datza, hark azpiratzen baititu emakumeen ahalmenak eta mugatzen ditu produkzio-sisteman, elikadura-subiranotasunean eta lurraldetasunean esku hartzeko haiek dituzten aukerak, eta ipintzen ditu egoera sozio-ekonomiko ahul batean. Horrez gain, emakumeen aurkako indarkeriak eskualdeko indizeak altuenak azaltzen ditu. Kalkuluek diotenez, 10 emakumetatik 7k nola edo halako indarkeria pairatu dute beren bizitzan. Beren bikotekideak emandako tratu txar fisikoak, sexualak eta emozionalak adierazten dituzte indarkeriaren biktimek, eta horren ondorio dira feminizidio zifra altuak.

Hori dela eta, emakumeen nazioarteko erakundeetatik eta bertakoetatik eraginkortasun politikorako hainbat estrategia sustatu dira ezberdintasun horiek astintzea lortzeko eta, bide batez, gutxiagotzeko. Ekinbide horietako bat izan da genero-transbertsalizazioa politika publikoan aurrekontu publikoen azterketaren bidez. Prozedura horrek hamabost urte baino gehiagoko ibilbidea egin du jada Bolivian eta aurrerapauso interesgarriak lortu ditu berdintasun-politiken onerako, jarraian azalduko dudan eran.

Euskadiri dagokionez, krisi ekonomikoak Estatuko beste lekuetan adinako eragina izan ez badu ere, ezberdintasun soziala areagotu egin du, apalki bada ere. Gizarte-babeserako sistema zabal batek samurtu badu ere (eta hark ere pairatu du krisiaren eragina), genero-ezberdintasunak egitate bat dira bertan ere. Berdintasun-planak egikaritzen urteak eta urteak daramatzagunez, komeni da gogoeta bat egin eta aztertzea zenbat inbertitzen den eginkizun horretan eta, batez ere, zein den egungo berdintasun-politika publikoen oinarrian dagoen filosofia, eta noraino politika horiek laguntzen duten balio patriarkalak aldarazten, gizarte-ikuspuntutik emakume eta gizonentzat berdina goa eta gizalegezkoagoa izango den gizarterako bidean. Ezingo da aurrera egin ez badago aldaketarik maila horretan, emakumeok gizateriaren erdia osatzen baitugu.

Hori dela eta, ekonomia-, zerga-, eta genero-politikarako lan-ildo berriak landuagoak izan behar dute paradigma-aldaketa bat sustatzeko politikagintza-eran, egun dugun gizarte-sistema honetan emakumeek egiten duten erreprodukzio-lan guztia aintzat hartuz, bizitzaren iraupenerako lana erdigunean ipiniz eta ekonomia sistema alternatibo bat sustatuz ekonomiaren eta gizartearen antolamendurako, pertsona guztien artean, eta egungo sistema eraldatzen joan kritika-gaitasunaren bitartez eta eragin soziala izango duten ekinbideez, hazten ari diren ezberdintasun horiek murrizteko.

Gai horri buruzko errealitate eta ibilbide ezberdineko bi herrialdetako esperientziak direnez aztergai dokumentu honetan, bananduta azalduko dira lurralde bakoitzean garabide horretan izandako aurrerapausoak eta atzerapenak.

alde nabarmenak kausitzen dira aztergai izan ditugun bi testuinguruetan eta bi gaitan: tokiko gobernuetako G1Aetan, hau da genero-ikuspegiaren aplikazioan, eta autonomia- eta deszentralizazio-prozesuetan (Boliviako kasuan bereziki Indigenen autonomiari buruzkoan). Boliviako eta Euskadiko testuinguruetan bildutako esperientziaren ondotik, bi prozesu horiek egindako aurrerapenak eta izandako eragozpenak ezagututa,

proposatzen da aurrerapausoak ematea zerga-sistema bidezko eta ekitatiborantz, zerga-politika eta gastu publikokoa era koherentean antolatuz emakumeen beharrian estrategiko eta praktikoein, eta hauek lurraldearekin, berdintasuna eta bizitzaren iraunkortasuna lagunduko duten politika publikoak prestatzeko.

Hori dela eta, jarduketa-ildo berriak, adibidez zerga eta genero-justizia, gehiago landu behar dira politika egiteko eran paradigma-aldaketari laguntzeko, egun nagusi den sistema patriarkalean emakumeek egiten duten erreprodukzio-lan guztiak aintzat hartuz. Horrekin batera politika publikoen diseinua egin behar da, berdintasunaren alde jokatz, lehentasuna emanez pertsonen bizimodua zuzentasunez, berdintasunez eta ingurumenarekiko solidaritatez egitea lortzen lagunduko duen sistema ekonomiko eta sozial bati.

Aldaketa horiek erdiesteko, honako gomendio hauek proposatzen dira hiru esparrutan:

#### Nazioko eta tokiko gubernuak

- ❖ Berariazko genero-adierazleak mantendu eta ugaritzea estatistiken informazio- eta erregistro-sisteman generoka bananduta, politika publikoen eraginkortasuna eta efikazia hobetu ahal izateko, genero-arraildurak murrizte aldera.
- ❖ Analisi-kategoriak berrikusi eta (behar izanez gero) ugaritzea aurrekontua aztertu ahal izateko, bai diru-bilketaren ikuspuntutik (diru-sarrerak) eta bai inbertsio publikora bideratutako gastuaren ikuspegitik, emakumeengana eta/edo genero-ezberdintasuna murriztera bideratzen denean.
- ❖ Prestatu eta aurrekontu publikoen analisi-metodologian txertatu berariazko neurriak genero-zeihartasunak, bai esplizituak eta bai inplizituak, murrizteko zerga-politikan (batez ere Boliviako kasuan, onestear baita itun fiskala).
- ❖ Aintzat hartu eta agerian ipini ezkutarazten den erreprodukzio-lana, emanez, esate baterako, onura fiskalak, zerga zuzenen murrizketak bizitzaren zaintza eta sostengurako lanak egiten dituzten pertsonentzat (oraindik ere gehienetan emakumeek egiten baitituzte).

- ❗ Emakumeen laneratzea sustatuko duten politikak ugaritzea, ekintza positibo eta emakumeen eskubide ekonomikoak indartzeko neurri moduan. Batez ere, zaintzako ardurekin zerikusia duten emakumeentzat, gizonen eta emakumeen arteko arraildura ekonomikoak murrizteko.
- ❗ Familiako eta laneko bizimodua bateratzeko erraztasunak eskainiko dizkieten programak eta ekintzak sustatzea, familiak (era guztietakoak, monoparentalak, e.a. barne) sortu dituzten emakumeentzat eta gizonentzat, baldintza eskaseko enpleguen mende geratu behar gabe.
  - Berriazko politika eta ekintzak sustatu gizonen esku-hartzea eta erantzukizuna bultzatzeko eta errazteko bizitzaren zaintza- eta sostengu-lanetan, Estatu espainolean PPINA plataformaki egiten duen moduan, adibidez.
  - Esparru berriak sortzeko edo lehendanik badiren esparruetan, Boliviako Genero Ikuspegidun Aurrekontuen Mahaia edota Genero Eraginaren Taldea, Emakundek, Euskadiko Udalen Elkarteak eta Berdinsareak osatzen dutena esaterako, gai hauek txertatzeko pizgarriak eman.
  - Aurrekontuen eta generoaren inguruko lantalde berriak sortu udaletako departamenduetako langileekin, tokiko politika publikoan genero-ikuspegia txertatzeko analisiak, programak eta baliabideak aberastu ahal izateko.

### Akademia

Proposamen hauek aurkezten dira:

- ❗ Ekonomia feministako ikerlanak sustatu unibertsitate-graduetan eta curriculumetan, eta genero ikuspegidun aurrekontuetako ikastaroak eta espezialitateak, alor zehatz horretan aditu berriak sortu ahal izateko, eta genero-ikuspegia zabaltzeko finantza, aurrekontu eta inbertsio publikoen azterketetan.
- ❗ Genero ikuspegidun aurrekontuetan formakuntza eta prestaketa sustatzea emakumeen antolakundeetan eta gizarte zibilean oro har, ezberdintasuna agerikoa izan dadin, gizarteko erreprodukzio-lana eta zaintza-lana argitaratu dadin, oinarri funtsezkoa baita gizartearen aurrerapenerako eta balioen aldaketarako gizarte

berdintasun-zalea, justua eta bizitzaren jarraikortasunarekin arduratsua izango dena eraikitzeko, pertsonen arteko solidaritatean oinarritutako balioak aintzat hartuz.

Dokumentu honek ikuspuntu kritikoa du gobernuetik eta politikagintzarekiko, eta haien erantzukizunarekiko, ezberdintasuna dela eta egiten diren aurrerapen eta atzerapausoen aurrean. Horregatik, azpimarratzen du genero-ikuspuntuaren aplikazioa lanabes politiko zehatza bailitzan, aurrekontu publikoetan, ezberdinkeria globalari ezinbestean itsatsita dagoen genero-ezberdintasunari aurre egiteko era bat delakoan.

Laburbilduz, ez da dokumentu tekniko hutsa, eta ez du inolako metodologia berririk proposatzen, baizik eta bi testuinguruetan bildutako esperientzien ekarpena jasotzen du, haietako bakoitzean egin den lanak aitortuz, alderdi positiboak azpimarratuz eta argituz beste zenbait alor, aplikaturiko metodologian garatzeke geratu direnak, haietako bakoitzetik eratortzen diren proposamen berriak aurkeztuz, gogoeta-bide izan daitezen eta ildo horretan aurrera egiteko lagungarri.

Azkenik, esan nahi dut generoak gobernagarritasun autonomoko prozesuak gainditu behar dituela, bere oinarrietatik barneratuz patriarkatuak sorrarazten dituen ezberdintasunak erauzteko mekanismoak, ondo bizitzearen esanahi eta garapen sakonaren bilaketan, eta ezarritako sistemaren ezberdintasunen gainetik aurrera egiten duten herritarren garabidean hezurmamituta, gizarte justu eta solidarioagoen helburuak eraginda.

# AURKIBIDEA

**AURKEZPENA**

**AURREKARIAK**

**HELBURUAK**

**GENERO IKUSPEGIDUN AURREKONTUAK: HURBILKETA  
TEORIKO-PRAKTIKOA**

**GENERO IKUSPEGIDUN AURREKONTUEN EGUNGO  
EGOERA BOLIVIAN**

**GENERO IKUSPEGIDUN AURREKONTUEN ESPERIENTZIA  
EUSKADIN: BILBOKO ETA DONOSTIAKO KASUAK**

**ESPERIENTZIA POSITIBOAK ETA IKASBIDEAK**

**GOMENDIOAK**

- AURREKONTU ETA GENERO JUSTIZIARAKO  
GOMENDIO OROKORRAK
- AUTONOMIA ETA DESZENTRALIZAZIO  
PROZESUETAN GENERO IKUSPEGIDUN  
AURREKONTUAK INPLEMENTATZEKO  
GOMENDIOAK

**NOTAK**

**BIBLIOGRAFIA**

*Jakina, ez daude oker politika ekonomikoak soilik, baizik politika guzti-guztiak; hezkuntzakoetatik hasi eta kulturakoetaraino, kanpo-politikatik justiziaraino. Abortatzeari ezarritako atakak eta genero-indarkeriaren trataera dira horien guztien adierazle lazgarri eta transbertsalak.*

**Pazos Moran, M (2013)**



# 1. AURKEZPENA

Azken hamarkadan muturreko pobrezia murrizten egin diren aurrerapenak garrantzitsuak izanik ere, OXFAMen datuek diotenez, ezberdintasuna areagotzen ari da mundu osoan. Urtea joan eta urtea etorri, aberatsen eta pobreen arteko zuloa gero eta handiagoa da, bai Iparraldekoak deitu ohi ditugun herrialdeetan eta baita Hegoaldekoetan ere. Fenomeno horren esplikabideak kausa asko ditu baina, zalantzarik gabe, merkataritza librean oinarritutako eredu ekonomikoak, babesgabetasun gero eta nabarmenagoak eta kapitalaren gehiegikerien aurrean gobernuek azaltzen duten interbentzionismo motelegiak ahalbidetu du krisi-egoera sor dadila pertsonen, komunitateen eta egun desagertze bidean aurkitzen diren baliabide naturalen bizikidetza harmoniatsuan.

Latinoamerika da munduko eskualderik ezberdinena, eta hori horrela izan dadin arrazoi nagusietako bat da hango gobernuek gutxiegi erabiltzen dutela zerga-politikaren bitartez ezberdintasunak murrizteko duten boterea (Lusting, 2011).

Nazioarteko esparruan, Bolivia nabarmendu da eskualde latino-amerikarrean azken hamar urte hauetan gizarte-agendaren sustapenaren eredu izaten Latinoamerikan. MASen gobernupean, 2006az geroztik, erreforma politiko eta ekonomikoak egin dira, herrialdean nagusi izan zen eredu neoliberala gainditu eta Estatua birfundatzea helburu zela beti ere. Horrek ekarri du BPGaren hazkunde etengabea eta, aldi berean, Boliviako biztanleen artean erabateko pobrezia eta ezberdintasuna gutxitzea.

Halaz eta guztiz, gizarte-politiketan aurrerapauso garrantzitsuak eman diren arren, ez da aldaketa nabarmenik nabaritu zerga-bilketako sisteman, ezta baliabide nazionalak lortzeko gobernuak erabiltzen duen politika ekonomikoan ere, baliabide naturalen erauzketan oinarrituta baitago funtsean berau, eta horren mende jarraitzen baitu ekonomia nazionalaren hobekuntzak. Hori dela eta, BPGaren gorakadak irmo iraun du 2014ra arte, eta urte horretatik aurrera jaisten hasi da hidrokarburoen salneurriak nazioartean izan duen beherakadaren ondorioz<sup>1</sup>.

Gainera, eraldaketa ekonomiko eta sozialak berrikuntza garrantzitsuak erakarri zituen gizarteratzearen alorrean, eta horien ondorio da erdi-mailako klase edo jende-taldeak ugaltu izana, eta horrek bazterketa eta nahikunde berriak sorrarazi ditu. Sen onaren mugarri diren nahikunde berrien artean identitateek eginkizun funtsezkoa dute eta aurrerapen- eta modernotasun-nahiak uztartzen dituzte kontsumo kultural zein ez-kultural berriekin, eta zerbitzu publikoen kalitatearekiko atsegintasunarekin. Gainera, faktore etniko edo kulturei lotutako partaidetasun-sentipenekin bat egitera datoz hauek eta ikuspegi luzeagoko gizarteratze-itzarokizunekin lotuta daude.<sup>ii</sup>

Bestalde, genero-ezberdintasunak iraun egin du urte hauetan guztietan Andeetako herrialdean. CEPALen datuen arabera, oraindik lan-merkaturatzearen alorrean 8,2 puntuko aldea dago emakumeen eta gizonen artean eta, aldiz, emakumeek egiten duten etxeko lana % 15 gehiago da gizonen egiten dutena baino. Horrelako ezberdintasunen oinarria patriarkatuan datza, hark azpiratzen baititu emakumeen ahalmenak eta mugatzen ditu produkzio-sisteman, elikadura-subiranotasunean eta lurraldetasunean esku hartzeko haiek dituzten aukerak, eta ipintzen ditu egoera sozio-ekonomiko ahul batean. Konplizitatez, aurretik haren onurak probestu ondoren, erreprodukzio-lana eta bizitzari eusteko zaintza-lanak ezkututzen dituen sistema ekonomiko kapitalista sustatzen da, ezberdintasun sozialean eta indarkeria ekonomikoan oinarritzen den sistemari eusteko ezberdintasun horien elkarlotzea pairatzen duten gizataldeen kalterako; hau da, Latinoamerikan herri indigenak eta afrikar etorkikoak direnentzat, eta, jakina, emakumeak ere multzo horretan barnebiltzen dira.

Horrez gain, emakumeen aurkako indarkeriak eskualdeko indizerik altuenak azaltzen ditu. Kalkuluek diotenez, 10 emakumetatik 7k nola edo halako indarkeria pairatu dute beren bizitzan. Beren bikotekideek emandako tratatu txar fisikoak, sexualak eta emozionalak adierazten dituzte indarkeriaren biktimek, eta horren ondorio dira feminizidio zifra altuak. Kasuen % 23tan baino ez da zertu zigorrezko sententzia bat. Indarkeriaren biktimak artatzeko zerbitzuek huts egiten dute sistematikoki, eta horrela betikotzen da zigorgabetasuna. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko pertzepzioaren inguruan Oxfamek 2016an gazteen artean egin zuen inkesta batean agertzen denez, emakumeen aurkako indarkeria litzateke konpondu beharreko arazo nagusietako bat.

Hori dela eta, emakumeen nazioarteko erakundeetatik eta bertakoetatik eraginkortasun politikorako hainbat estrategia sustatu dira ezberdintasun horiek astintzea lortzeko eta, bide batez, gutxiagotzeko. Ekinbide horietako bat izan da genero-transbertsalizazioa politika publikoan aurrekontu publikoen azterketaren bidez. Prozedura horrek hamabost urte baino gehiagoko ibilbidea egin du jada Bolivian eta aurrerapauso interesgarriak lortu ditu berdintasun-politiken onerako, jarraian azalduko dudak eran.

Euskadiri dagokionez, krisi ekonomikoak Estatuko beste lekuetan adinako eragina izan ez badu ere, ezberdintasun soziala eta genero ezberdintasuna areagotu egin ditu Gizarte-babeserako sistema zabal batek samurtu badu ere. Berdintasun-planak egikaritzen urteak eta urteak daramatzagunez, komeni da gogoeta bat egin eta aztertzea zenbat inbertitzen den eginkizun horretan eta, batez ere, zein den egungo berdintasun-politika publikoen oinarrian dagoen filosofia, eta noraino politika horiek laguntzen duten balio patriarkalak aldarazten, gizarte-ikuspuntutik emakume eta gizonentzat berdina goa eta gizalegezkoagoa izango den gizarterako bidean. Ezingo da aurrera egin ez badago aldaketarik maila horretan, emakumeok gizateriaren erdia osatzen baitugu.

Hori dela eta, ekonomia-, zerga-, eta genero-politikarako lan-ildo berriak landuagoak izan behar dute paradigma-aldaketa bat sustatzeko politikagintza-eran, egun dugun gizarte-sistema honetan emakumeek egiten duten erreprodukzio-lan guztia aintzat hartuz, bizitzaren iraupenerako lana erdigunean ipiniz eta ekonomia sistema alternatibo bat sustatuz ekonomiaren eta gizartearen antolamendurako, pertsona guztien artean, eta egungo sistema eraldatzen joan kritika-gaitasunaren bitartez eta eragin soziala izango duten ekinbideez, hazten ari diren ezberdintasun horiek murrizteko.

## 2. AURREKARIAK

Lan hau, “Lurralde indigena/hekazarien autogestioa gobernantzarekin Amazonian eta Chacon” izenburua duen programaren jarduketa-multzoaren emaitza da; Eusko Jaurlaritzak finantzatuta OXFAMek lantzen du programa hori, eta 2015-2017 denboraldia hartzen du.

Gai bat eta beraren inguruan txirikordatzan dira jarduketa horiek: fiskalitatea eta gizarte- eta genero-justizia, OXFAMek Bilbotik lantzen dituen ekinbideen ildoan: nazioarteko lankidetzaren eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza-programa, Euskal Autonomia Erkidegoaren laguntzarekin.

OXFAMek Bolivian duen bulegotik egikaritzen da eta koordinatzen da Bilboko egoitzarekin programa hori, eta haren baitan dauden bi gai-esparru berezituak:

- ❖ **Genero-justizia.** Sarean lan egiten da emakumeen antolakundeekin, ikerketak egin eta prestakuntza eskaintzen da fiskalitate-gaietan eta genero-ezberdintasunari buruz eragin mediatikoa dutenetan.
- ❖ **Gobernagarritasuna eta baliabide naturalen kudeaketa.** Emakumeen eskubide ekonomikoak eta sozialak eta emakumeen partaidetza politikoa sustatzea gobernanta-prozeduretan.

Halaber, genero-justiziako programarekin estuki giltzatuta dagoen kanpainen eta eraginkortasunaren esparruarekin lotzen da, bereziki Estatu espainiarrean egiten ari den **BERDINAK kanpainaren**<sup>iii</sup> baitan, fiskalitate eta aurrekontu publiko/gastuen inbertsioen gaietan genero-ikuspegiarekin berariazko zerikusia duten edukiekin. Boliviako autonomia indigenen prozesuaren gaia da idazlan honetan landu nahi dugun bestea.

2009ko konstituzio berriak aintzakotzat hartzen ditu estatu plurinazionala, lurraldeen autonomia eta egungo garapen-ereduaren ordezkoko ekonomia alternatiboa. Deskolonizazioa proposatzen du harreman-paradigma moduan, eta hori aplikagarria litzateke bai

genero-harremanetarako eta bai herrialdean bizi eta lan egiten duten talde etniko ezberdinen arteko harremanetarako. Horrek ezinbestez bestelako antolamendu sozialak aintzakotzat hartu beharra darama berekin, esate baterako lurralde indigenen kasuan.

2001tik aurrera, Boliviako emakumeen antolakundeek genero ikuspegidun aurrekontuak (GIA) bultzatu dituzte, UNIFEMek Andeetako hainbat herrialdeetan landu duen metodologia erabiliz, eta horrek ibilbide luzea izan du herrialdean. Gaiaren inguruan azpimarratu behar da denboraldi horretan OXFAMek diruz lagundu duela nazioarteko erakunde horrek herrialdean burutu duen jarduketa eta, bide batez, honako emakume-antolakunde hauei lagundu zitzaizela, besteak beste: Gregoria Apaza, Cabildeo de Mujeres, IFFI, Emakumeen Koordinakundea eta REMTE.

Geroago ikusiko dugun eran, Boliviako elkargo hauen lana bi mailatan zertu da, nagusiki: alde batetik, gobernu zentralarekin lankidetzan La Pazeko aurrekontu nazionalaren azterketa eginez, eta tokiko gobernuekin, metodologia bat landuz eta azterketa-kategoria batzuk diseinatuz, eta aurrekontu publikoetan genero-ikuspegiko transbertsalizaziorako lobby-lana eta aholkularitza teknikoa eginez. Eta bestetik, gizarte zibilean esku hartuz, Ekonomia Eraldatzeko Boliviako Emakumeen Sarea (REMTE) bezalako erakundeen bitartez, herrialdeko hainbat hiritan genero ikuspegidun aurrekontuetan prestakuntza-prozesuak antolatuz.

Hamar urte baino gehiago abian daraman jarduketa horrek masa kritikoa sorrarazi du, batez ere emakumeen artean, ikuskaritza eta eraginkortasun politikoaren alde eta eskatu ere eskatzeko genero-ikuspegia txerta dadila aurrekontuetan sistema patriarkalak sorrarazten dituen arraildurak murriztuko dituzten politika publikoak susta daitezen.

Aldi berean eta paraleloan, abiarazi den autonomia-prozesuak arau-eta erakunde-aldaketak erakarri ditu. 031 Legea, Autonomien eta Deszentralizazioaren esparru-legea, eta 777 Legea argitaratu zirenetik prozedura hori aurrera eraman ahal izateko oinarriak ezarrita daude. Bide batez, hainbat herri indigenetako erakundeak prozedura horretaz baliatzen hasi ziren, tirabirekin bederen, hain

zuzen ere hainbat izapide egin eta eragozpen burokratiko gainditu beharra sortzen baita. Kasu horietako bat, agian aurreratuen, Iyambe Charagua herri guaraniaren autonomia-prozesuarena izango litzateke, eta OXFAMetik sustatzen eta laguntzen ari garen prozesuetako bat da. Jarduketan partaide diren erakundeen artean planteatzen den arazoetako bat da nola txertatu genero-ikuspegia prozesu horretan, norbanakoen zein talde mailan, emakumeen eskubideak ere berma daitezzen. Bi ikuspegi horiek kontuan hartuz, idazlan honek jasotzen ditu euskal programaren baitan egin diren jarduketetan sortutako gogoetak:

1. Esperientzia-trukaketa Boliviatik etorritako ordezkari bat (Guarani herriko lider batek eta soziologia-ikertzaile batek, emakumeak biak, osatzen zutena) eta Bilbo eta Donostiako tokiko gobernuetako genero-alorreko langileen artean; harremanaren helburua zen ezagutzea deszentralizazio-esperientzia eta aurrekontuen garabidea, eta aldi berean Boliviako deszentralizazio-prozesuaren esperientzia partekatzea.
2. Euskadin genero ikuspegidun aurrekontuetan (GIA) esperientzia duen aholkulari batek GIAei buruzko jardunaldi nazionaletan parte hartzea Boliviako La Pazen emakume adituen antolakundearen ordezkariarekin, elkarrizketa eta ikasbide-eta erronka-trukaketa abiarazteko gai horren inguruan.
3. Bilerak eta koordinazio-lana OXFAMeko lantalde teknikoarekin eta tokiko eta indigenen erakundeekin, adibidez CEDLA-Landalurretako Lan eta Nekazaritza Garapenerako Azterlanen Zentroko kideekin, genero ikuspegiaren ezarpenean aholkularitza-lana egiteko, Boliviako hainbat lurralde indigenatan aurrera eramaten ari diren autonomia-prozesuaren baitan. Zehazki, Charagua herri guaraniaren kasuan eta Amazoniako Beni departamenduko inguruko beste herri batzuetan egin da jarduketa, autonomien onarpen-prozesuan aurreratuenetakoak direnez.

Beraz, idazlan honek izan nahi du hiru esperientzia horien inguruko gogoeta eta azterketarako lan bat, aurrekontu publikoetan, eta bide batez politika publikoetan, genero-ikuspegia aplikatzeari dagokionez, lorpenak eta ikasbideak azpimarratuz, baina era berean agerian ipiniz lanketa horretan parte hartu duten elkargo eta erakundeek aurkitu dituzten eragozpenak eta aurrerantzean gainditu beharko dituzten erronkak bakoitzak bere lurraldean haien aplikazioan aurrerapausoak eman ahal izateko, batez ere herri indigenak lantzen ari diren autonomia eta deszentralizazioaren testuinguruan.



© Oxfam Intermón

### 3. HELBURUAK

Dokumentu honen helburu nagusia da hausnarketa bultzatzea eta genero ikuspegidun aurrekontuei buruzko azterketa kritikoa agertzea bai gizarte-antolakundeei eta bai erakunde publiko zein pribatuei, genero ikuspegidun aurrekontuak aplikatzen jarraitzeko, bai Bolivian eta bai Euskadin, genero-ezberdinkeria murrizteko politika publikoetan genero-transbertsalizazioaren aplikaziorako metodologiak gehitu eta hobetu ahal izateko bi herrialdeetan genero-ezberdintasunak murriztu daitezzen bietan ere.

Horretarako, honako helburu zehatz hauek lortu nahi lirateke:

- Genero ikuspegidun aurrekontuen gaian emandako aurrerapausoak aztertu, bi herrialdeetan aplikatu diren metodologiaren alde sendoak azpimarratuz.
- Aztergai diren bi esperientzietatik ikasbideak sortu, jarduketan egokietan eta eragozpenetan azpimarra ipiniz generoari dagozkion aurrekontuen aplikazioa hobetzeko Boliviako zein Euskadiko testuinguruetan.
- Orientabideak proposatu aurrerapausoak emateko genero-ikuspegiaren aplikazioan bi herrialdeetako aurrekontuetan, bakoitzak duen errealitatearen arabera.
- Erakunde eta gizarte-antolakundeen arteko aliantzak uztartu gizarte batean zein bestean generoen arteko arraildurak murrizteko ekintzak zertzeko.



## 4. GENERO IKUSPEGIDUN AURREKONTUAK

Oraintsu onartu da aurrekontu publikoak baliabide estrategikoak direla emakumeen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen (EESK) aldeko borrokarako.

Hasiera batean, irizten zen aurrekontu publikoak neutralak izaten zirela genero-ekitateko helburuei zegokienez eta, uste zen “edonor” mesedetuko zutela gutxi gora behera maila bertsuan, eta bide batez ez ziren aintzakotzat hartzen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun sozialak roletan, arduretan eta gaitasunetan, ez eta sexu-banaketatik eratortzen diren hainbat eta hainbat ezberdintasun. Horregatik, gastu publikoko politiketan ez ziren kontuan hartzen esplizituki genero-ekitatezko irizpideak aurrekontuetako baliabideak bideratzeko erabakiak hartzerakoan.

Halaz eta guztiz ere, laurogeiko hamarkadan, ikertzaile talde batek, eta haien artean Diana Elson (1987), Debbie Budlender eta Rhonda Sharp (1988) aipa ditzakegu, gaia aztertu eta haren neutritasun-eza agerian ipini zuen. Bideabar, ikerlari horiek aurkeztu zuten genero ikuspegidun aurrekontuen analisisa egiteko eredu metodologiko bat.

Ikertzaile multzo horrek iradokitzen dituen baliabideak honakoak lirateke:

1. Genero-kontzientzia duten politika publikoen balioespena.
2. Onuradunak generoaren baitan bananduta balioestea.
3. Gastu publikoa generoaren baitan bananduta aztertzea.
4. Generoaren baitan banandutako diru-sarreraren eragina aztertzea.
5. Generoaren baitan bananduta aztertzea denboraren erabilpenean aurrekontuak duen eragina.
6. Genero kontzientziadun aurrekontuaren txostena.
7. Genero kontzientziadun politika ekonomikoaren esparrua epe ertainera.

Geroago, ikerlan horiek abiapuntutzat hartuta, UNIFEM-Nazio Batuen Emakumeentzako Agentziak berariazko gaikako ardatz bat landu zuen genero ikuspegidun aurrekontuei buruz, azterketa horiek egin ahal izateko metodologia praktikara eramateko xedearekin, eta mekanismo bat finkatu zuen genero-ekitatearen aldeko jarduketetarako aurrekontuen hazkundera eta eraginkortasuna sustatzeko. Hori dela eta, “Baliabide teknikoek (adierazleek) erakusten dute zein neurritan eta nola lortzen dituzten beren helburuak eta emaitzak politikek eta aurrekontuek genero-ekitateari dagokionez”. (Elson, 2002).

Azterlan horien ondorioz, hainbat ekinbide landu dira. Aurrekontu nazionala aztertzeko lehen proposamena 2001 eta 2002 urteetan egin zen UNIFEM Raren genero ikuspegidun aurrekontuen inguruko lanaren osagai moduan, hark duen Andeetako Emakumeen Eskubide Ekonomiko eta Sozialetarako programaren testuinguruan. Andeetako eskualdean adituak diren hainbat ikerlarik egindako azterlan hori aurkeztu eta eztabaidatu zen Ekuadorreko Guayaquilen 2002ko azaroan egin zen “Genero ikuspegidun aurrekontuak Andeetako eskualdean: eskubide ekonomiko eta sozialak baliarazteko baliabideak lantzen” esperientzia-trukaketarako tailerrean.

Liburu bat argitaratu zen esperientzia horren emaitzekin: “Hacia la transparencia y la gobernabilidad con equidad: presupuestos sensibles al género en la Región Andina” (Falú, 2004); bertan dokumentatzen da UNIFEM-Región Andinak 2001ean hasi eta ordura arte egindako bidea Bolivian, Ekuadorren eta Perun genero ikuspegidun aurrekontuak sustatzeko ahaleaginean.

Idazlan horretan genero ikuspegidun aurrekontuak definitzen dira esanez:

- ❖ Aintzakotzat hartzen dituzte gizartean emakumeek eta gizonek dituzten behar, interes eta errealitate ezberdinak, eta haien sustraian dauden ezberdintasunak, eta horiei aurre egiteko baliabideak eskaintzen dituzte.

- ❗ Aintzakotzat hartzen dituzte gizonek eta emakumeek ezberdinki ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko, eta giza lanean, egiten dituzten ekarpen ordainduak eta ez-ordainduak, eta haiek kontuan hartzen ditu baliabideak eskuratzeko eta banatzeko.

Aurrekontuaren azterketa hasiera batean egin zen gastu publikoan eginiko inbertsiotik abiatuz, hiru elementu oinarritzat hartuz:

a) *Iradokitako baliabideetako bat hautatu*, aurrekontuen informazioan identifikatzeko genero-ekitatearen aldeko birbanaketako helburuetara bideratu ahal izateko malgutasun nahikoa duen gastuaren zenbatekoa.

b) Helburu horretarako erabil daitekeen *gastu-mota* (funtzionamendukoa eta inbertsiokoa).

d) Hautatu den gastu-mota *zein gastu-kategoriatar*a bideratu behar den.

Analisi-maila ezberdinak funtsean bi motatakoak izaten dira: emakumeengana bideratutako inbertsioa eta genero-berdintasunean eginiko inbertsioa. Genero-ekitatean eginiko inbertsioaren adierazlea zenbatesten da aipatutako inbertsio-maila horien baitan, hau da:

1. Emakumeengana bideratutako inbertsioa. Onuradunak emakumeak dituzten programa eta jarduketa guztiak barnebiltzen dira.
2. Berdintasunean eginiko inbertsioa. Genero-rolen inguruko balioak berdintasunerantz aldaraztea helburutzat duten programa guztiak hartzen dira aintzakotzat. Hiru mailatan antolatu zen azterlana:
  - ❗ Lan-indarraren erreprodukzioan eta familiaren zaintzan erantzunkidetasun soziala.
  - ❗ Berdintasunaren kulturen inbertitu.
  - ❗ Genero-berdintasunerako baldintzekin eginiko birbanaketa soziala.

Genero ikuspegidun aurrekontuaren ehunekoa kalkulatzeko era da kategoria horietako bakoitzari esleitu zaizkion aurrekontu-

zenbatekoen batura egitea, gastu publikoan egiten den guztizko inbertsioarekin alderatuta.

Horren baitan, genero-ekitatean eginiko inbertsioaren adierazleak “ahalbidetzen du argitzea erakunde publikoaren borondate politikoa genero-ezberdintasuna erauzi eta genero- eta gizarte-ekitatea eraikitzeke neurriak egikaritzeko” (Fernández, 2009,16).

UNIFEM-RAk genero ikuspegidun aurrekontuak egikaritzeko darabilen estrategiaren baitan, hiru jarduketa-eremu zehaztu ziren haietan ekinbide paraleloak abiarazteko:

- a. **Gobernuak**, bi ildotan:
  - Nazio mailako aurrekontu-analisiak egiteko.
  - Lekuan lekuko gobernuan parte-hartze prozesuak sustatzeko.
- b. **Akademikak**. Azterlanak gizarte kapitalistan emakumeek egiten duten produkzio-lanari eta erreprodukzio-lanari buruz.
- c. **Gizarte zibila**: Behatoki herritara. Aurrekontuei buruzko gardentasuna eta sentiberatasuna sustatu.

Hauxe izan da UNIFEMen ardatz tematikoa genero ikuspegidun aurrekontuen garapen-lanean hamar urte baino gehiagoz, Andeetako eskualdeko hainbat herrialdetan, bereziki Ekuadorren eta Bolivian. Gure azterlana azken herrialde horri buruzkoa denez, ataltxo bat aurkeztuko dut gai horren inguruan herrialde horretan zehazki egin dena azaltzeko.

## 5. GENERO IKUSPEGIDUN AURREKONTUAK: BOLIVIAKO KASUA

Laurogeita hamarreko hamarkadan abiatu zen prozesua 1994ko herritarren parte-hartzeari buruzko Legearekin. Urtebete geroago, Deszentralizazio Legea onetsi zenean, hasi zen herrialdean gobernu zentraletik tokiko gobernuetarako transferentzien prozesua, eta erakunde batzuk genero ikuspegidun aurrekontuak lantzen hasi ziren eskala apalean. Bestalde, herrialde osoan gobernu zentraletik tokikoetara konpetentzia deszentralizazioa egiteko bidea ere abiatzen zenez, bi prozesuak paraleloan gauzatu ziren denboran.

Testuinguru horretan eta UNIFEMek genero ikuspegidun aurrekontuak egikaritzeko egin zuen proposamenaren ondorioz, 2001ean ekin zitzaion oinarrizko lanari zenbait gizarte-erakunde eta GKEekin batera lau lurraldetan: La Paz, Cochabamba, Sucre eta Santa Cruzen. Hasteko, 2002an landu zen bi aholkularitza-bulegok UNIFEMentzat egin zuten dokumentu teknikoa, Andeetako hainbat herrialdetako aurrekontu publikoak aztertuz; Carmen Zabalagak egin zuen Boliviakoaren azterketa<sup>iv</sup>.

2004an, Zabalagak berak beste ikerlari batzuekin, Emakumeen Trebakuntza Osorako Institutua (IFFI)<sup>v</sup> erakundearen proiektu baten baitan, aurkeztu zuen Cochabamban oinarritutako azterlan bat genero ikuspegidun udal-kudeaketaren baitan urteko programa operatibo bat nola landu azalduz, aintzakotzat hartuz udal planifikaziorako araudia eta abian zeuden deszentralizazio eta herritarren esku-hartze prozesuak<sup>vi</sup>.

Udal-kudeaketa parte-hartzaileari eta herritarren parte-hartzeari eta administrazioaren deszentralizazioari buruzko legeei dagokienez, ondorioztatzen da herritarren parte-hartzeak ahalbidetu duela politikak, programak eta proiektuak egiterakoan prozesu parte-hartzailea arrakastatsuak egikaritzea. Horren emaitzak jaso dira Udal Plan Estrategikoan (epe ertain eta luzerakoan), udal-garapenerako planetan eta urteko plan operatiboetan (epe motzekoetan). Prozesu parte-hartzaileetan barneratu ziren hainbat baliabide, tokiko garapenean genero-ikuspegia horien artean<sup>vii</sup>.

Genero-ikuspegia egiazki politika publikoetan itsats daiteke soilik aldaketa-prozesuen osagaietako bat bezala hartzen bada. Azterlanaren egileak berak adierazten du metodologia aplikatu ahal izan zela La Pazeko udalak aurrekontua formulatzeko sistema garatua zuelako eta gainera konpromisoa hartu zuelako 2001etik aurrera genero-ekitatetako gastu-politika erabaki estrategikotzat lantzeko.

Kudeaketa horrek ahalbidetu zien bai prozesuan eta bai emaitzetan esku hartu zuten emakumeei: “Emakumeak aktiboki esku hartzea kudeaketa publikoko prozesuan, planifikazioan, egikaritzean, udal-kudeaketa zaindu eta kontrolatzean, eta horrek ahalbidetuko du genero-ekitateko politika publikoak errotzea eta aukera-berdintasuna sustatzea udal-aurrekontua zehaztu eta banatzerakoan” (Aguilar, 2003, 34 or).

Bidenabar, proposatu zen emakumeek parte har zezatela udal-kudeaketa parte-hartzaileko zikloaren baitako ekitaldietan: ereduaren osagaiak praktikara eramaten dituzten prozedura politiko eta sozialetan, demagun, udaleko goi-bileretan, aurrera egiteko jardunaldietan eta bilketa-erabakien topaguneetan. Esparru erakundetuak izan zituen parte-hartze horrek, esate baterako Zaintza Komitea eta oinarritzko lurralde antolakundeak (OLA). Ereduaren aplikazioaren emaitzetako bat da urteko plan operatiboa eta genero-ekitatea jasoko lukeen aurrekontua.

Osagarri legez, genero ikuspegidun aurrekontuen mahai nazionala eratu zen, ( aurrerantzean GIA), beroien garapen-prozesuan parte-hartzaile izan zedin, ondorengo erakunde hauek partaide zituela: Aukera Berdintasunaren Ministeriordetza, Emakumeen Formakuntza Integralerako Institutua (IFFI) Ekonomia Aldatzen ari diren Emakumeen Sare Latinoamerikarra (REMTE), Emakumeen Koordinakundea, Emakumearen Plataforma, Informazioaren eta Komunikazioaren Langileen Sare Nazionala (Red ADA), Ekitatearen eta Berdintasunaren aldeko Emakumeen Erakundea (AMUPEI) eta UNIFEM RA.

Boliviako kasuan, gastuan egindako inbertsioaren azterketarako erabilitako kategoriak hauek izan ziren:

- 1) Emakumeengana bideratutako inbertsioa. Horri buruz, ondorengo atal hauek hartzen dira kontuan:
  - Araudia: genero-ezberdintasunaren maila murrizteko ekintza positiboak sustatzen dituzten legeak.
  - Emakumeen partaidetza sozial, politikoa eta herritartasunaren egikaritzea.
  - Ekoizpen-ekonomiaren eta lanaren garapena emakumeen eskubide ekonomikoak eta autonomia egikaritzerako.
  - Zerbitzuak eta onurak lortzeko ahalmena: osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, herri-segurtasuna eta etxebizitza.
  
- 2) Lan-indarraren erreprodukzioan eta familiaren zaintzan erantzunkidetasun sozialerako egiten den inbertsioa. Esparru hauetan:
  - Legeak, arauak, politikak eta planak.
  - Atal horri atxikitzen zaizkion programak, proiektuak eta zerbitzuak.
  
- Egin diren ekintzetako batzuk honako hauek dira:
  - Adineko pertsonentzako edo desgaitasunen bat dutenentzako jarduketak.
  - Haur eta nerabeentzako proiektuak eta olgeta-zerbitzuak.
  - Gaitzeko, sentiberatzeko eta zabalkunderako jarduerak familia osoarentzat.
  - Arreta-programak bereziki zaurgarriak diren taldeentzat, adinekoentzat eta desgaituentzat, familia-osasuna edo haurren txertaketa.
  
- 3) Berdintasunaren kulturen inbertitu. Bost jarduketa-mota landu ziren bereziki. Haien artean, honako alor hauek:
  - Politikak, araudiak, erakundeak eta kudeaketa publikoa.
  - Eredu eta praktika kulturalak.

Ildo horretan aintzat hartu diren ekintzen artean hauek aipa daitezke:

- ❗ Genero-politikez edo patriarkalizazioa erauzteaz arduratuko diren erakunde publikoak sortzea eta abian jartzea.
- ❗ Emakumeen defentsa-mekanismoak.
- ❗ Herritarrentzako arreta-plataformak, gizatalde guztientzat zerbitzuak eskainiz; adibidez, desgaituentzako zerbitzuak.
- ❗ Haurtzaroaren eta nerabezaroaren defendatzaileak sortzea.
- ❗ Pertsonen giza eskubideei, genero-eskubideei eta indarkeriari buruzko prestakuntza.

4) Genero-indarkerian inbertitzea. Atal honetan horretarako aintzat hartuko lirateke programa hauek guztiak: azpiegiturak, zerbitzuak, koordinazioa, laguntza, prebentzioa eta genero-indarkeriaren biktima izan direnak laneratzea. Interesgarria da azpimarratzea 348 Legea, indarkeriarik gabeko bizimodua emakumeei bermatzekoa<sup>8</sup>, 2014an onetsi zenetik aurrekontuaren ehuneko jakin bat, ehuneko batekoa, esleitu zela, herrialde osoko departamentu guztietan nahitaez, ildo horretako ekinbideak betetzeko, eta horren baitan egikaritu dela nagusiki *Emakumearen Etxeak* (indarkeria egoera pairatzen duten emakumeentzako babes-etxeak) sortzea. Herri Segurtasuneko Ministerioaren % 30 lehen urterako eta % 10 ondorengo urteetarako. Halere, aurrekontu hori ez zen bete lehen urtean, eta horregatik bere horretan mantendu beharko litzateke jarraian hainbat urtez, bestela ekinbidea ez litzatekelako iraunkorra izango indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta integrala bermatzeko. Horrek adierazten du eragin politikoa lantzea beharrezkoa dela emakumeei arreta egokia eskaini ahal izateko aurrekontuak mantendu eta handitzeko.

5) Gizarte-inbertsio baldintzatua gizarte- eta genero-berdintasunerako (RISG). Beste bi kategoriatan ere jasota



dauden programen multzo bat barnebiltzen du: gastura eta erantzunkidetasun sozialera bideratutako inbertsioa, etxebizitza eta enplegu oinarritzko zerbitzuen alorrean. Halaber, beste gai batzuk ere jasotzen zituen, esaterako, lurraren jabetasuna, elikadura- eta ingurumen-segurtasunerako proiektua, generoaren arabera beharizan berezituak dituztenean.

Adierazleen bidez analisia egin ahal izateko, lehenik, kategoria horien arabera ekinbideak barneratzen zituzten politikak aletu behar izan ziren, diru-sailka antolatutako aurrekontu-dokumentu osoan barrena sakabanatuta bait zeuden arbitrarioki halakoak. Ahalegin handia eginarazi zien horrek aurrekontuen aztertzaileei, kontu-sail bakoitza banan-banan behatuz egin behar baitzen hautatuz eta zenbatetsiz kategoria bakoitzari zegokion ekinbide zehatzak.

- 6) Gastu publikoaren genero-azterketarako lau kategoria hauetara bideratutako aurrekontuen esleipena finantzabide-iturri ezberdinekin zenbatu da: zergen elkarkidetzak, kredituak/dohaintzak, GGI eta berariazko baliabideak

Bide batez, bai GIAen prozedura eta bai gobernu parte-hartzaileena elkarrekin aplikatu ziren estrategiaz, emakumeen eskakizunen agenda politika publikoetan txertatzeko, haiek baliarazteko aurrekontu publikoetan beharrezkoak diren eragin politikoak eta baliabide teknikoak ezarpena. Aipatu prozesuak 2011 arte gauzatu ziren; urte horretan, Genero Mahai Nazionaleko erakundeentzako finantzabide-arazoak zirela eta, murriztu egin zen gizarte zibilarekiko lan-ildo hori, GIAen inguruko azterketei eutsi bazaie ere, Zerga Politika eta Garapenari buruzko Lantaldearen bitartez (GPDP).<sup>9</sup>

## 6. GENERO IKUSPEGIDUN AURREKONTUEN EGOERA BOLIVIAN

Aurrekaririk gabeko aldia bizi izan zuen Boliviak 2006-2014 denboraldian, hazkundera eta inklusioa batuz. Neurrizko eta muturreko pobrezia beharakada eta diru-sarreraren ezberdintasunaren murrizketa izan ziren aldi horren bereizgarri iraunkorrak. Eraitza hori erakarri zuten hidrokarburoen eta mineralen salneurrien inguruan nazioarteko abagunea onuragarria izateak eta makroekonomiaren erabilpen neurritsuak, birbanaketaren aldeko politika publikoak egitearekin uztartuta. BPGa % 5eko batezbesteko tasaz hazi zen 2006 eta 2013 bitartean, eta % 6,8ko hazkundera ere iritsi zen 2013an, laurogeiko hamarkadan herrialdea demokraziara itzuli zenetik erregistraturiko mailarik altuenera alegia. Per capita BPGa 2013an \$US 2.700etara iritsi zen, eta erdi-mailako diru-sarrera duten herrialdeetako (MIC) bihurtu zen Bolivia. Kalkuluen arabera, biztanleriaren % 40 pobreenaren batez besteko diru-sarrerak gehiago handitu ziren populazio orokorrarenak baino, eta horrek ahalbidetu zuen aberatsen eta pobreen arteko zuloa laburtzea. Ondorioz, % 10 aberatsenaren eta % 10 pobreenaren arteko aldea diru-sarreretan murriztu egin zen 128 biderrekoa izatetik 39koa izatera igaroz.

Halaz eta guztiz ere, hazkunde inklusiboaren egungo egoerak arazo berriak pairatzen ditu. 2014tik hona moteldu egin da neurriko eta muturreko pobrezia murrizketa, eta baita diru-sarreraren ezberdintasunarena ere. Inklusiodun hazkunderaren zikloan, diru-sarreraren sorkuntzak eta pobrezia murrizketak ez ziren berdinki onuragarriak izan boliviarrak guztientzat. % 40 pobreenaren diru-sarrerak populazio osoaren batez bestekoa baino gehiago hazi izan baziren ere, joera horrek baditu ezkutuko ezberdintasun funtsezkoak. Biztanle-multzoen arteko arraildurak garrantzitsuak dira oraindik ere.

2014an landa-eremuetako 10 biztanletatik 4k pairatzen zuten muturreko pobrezia, hiriguneetan 10etatik 1 zenean. Gainera, bizilekuaren arabera, ezberdintasun-maila handienak landa-

eremuetan aurkitzen ziren, eta haietan Gini indizea 0,54 ingurukoa zen. Joera horrek nabarmentzen du beharrezkoa dela politika berriak proposatzea lortu diren helburuei eutsi ahal izateko, eta biztanle-multzo funtsezkoak baztertzen dituzten arraildurak itxi ahal izateko.

laz, 2016an, Boliviako aurrekontu orokorra % 1,8 murriztu zen aurreko urtekoarekin alderatuta. 2014ra arte hazi egin ziren hidrokarburoen diru-sarrerak gutxitzen hasi dira orain, eta horrek eragina izan du gizarte-politika eta -programetan, eta bereziki emakumeengana bideratuetan (34.8<sup>10</sup> Legea). Urte hauetan GIAen garapenean egindakoari dagokionez, ***zer gertatu da herrialdeko lurraldeetan GIAk aplikatzeko prozesua burutu ondoren?***

2011n, Gutiérrezek<sup>11</sup> egoeraren azterketa bat egin zuen genero ikuspegidun aurrekontuek herrialdean emandako aurrerapausoei buruz, lehen aipatu dugun esperientzia oinarritzat hartuz. Erdiosten duen lehen ondorioetako bat da, aipatu antolakundeetako batzuk esaten duten arren prozesuaren garabidean aurrekontua handitu egin zela norberaren udalean, hazkunde hori ez zela oso nabaria izan inondik ere.

Autoreak berak jasotako datuen arabera, 2007ko aurrekontuen analisisan, 24 udalek osatutako lagina abiapuntutzat hartuz, genero-ekitatean eginiko inbertsioaren adierazlearen zenbatespenak ondorengo datu hauek adierazten ditu: programaturiko guztizkoaren % 0,68 eta egikaritutako guztizkoaren % 0,76 lirateke genero-ekitatean eginiko inbertsioak. SEA Estatuko Zerbitzu Autonomoko teknikariaren lana oinarritzat hartuta, departamentuetako gobernu autonomoek, batez beste, % 0,27 bideratu zuten eginkizun horretara, eta udal-gobernuek, % 1. 2004 eta 2013 bitartean nabarmentzekoak izan ziren 2008 eta 2012 urteetako batezbestekoak, 356 eta 402 milioi boliviarreko inbertsioak egin baitziren<sup>12</sup>. Genero-ekitatezko arazoak konpontzeko borondate politiko eskasa adierazten dute datu horiek, ez baita inbertsioen guztizkoaren % 1 ere bideratzen helburu horretara.

Bestalde, ez da esaten laginean barneratutako udalak eraginkorrak izan zirenik egikaritzean, aurreikusitako mailak gainditu egin bait zituzten; horrek adierazten du finantza-eraginkortasunak ez duela

efikazia adierazten, helburu orokorrari dagokionez. Adierazle orokor horren banakapenak dira gainerako adierazleak eta joera bertsuak azaltzen dituzte beren emaitzetan, baina lurraldekako ezberdintasunak agerian ipiniz. Horien arabera, emakumeek gastu-lehentasunak zehazterakoan parte hartzea eragotzi zuten zergatietako batzuk honako hauek izan ziren:

- ❗ Emakumeen antolakundeek gai horien inguruan lege-ezagutzarik ez edukitzea.
- ❗ Lurralde-erakundeen izaera maskulino guztiz nabarmena.
- ❗ Emakumeek ordezkapen txikia izatea politikagintzaren alorrean.
- ❗ Berdintasun-politika eta -programa eskasegiak.
- ❗ Gizarte-programetan eta emakumeentzat estrategikoak direnetan egikaritze-maila baxua.
- ❗ Ezberdintasuna oro har eta genero-ezberdintasuneko arrailduren murrizketan ematen diren aurrerapausoak doitasun handiagoz neurtzeko estatistika eta adierazleen gabezia.

SEArek datuen arabera<sup>13</sup>, 2013an eta 2014an batezbesteko hori % 24raino iritsi zen (La Pazen izan zen ehuneko handiena, % 34,9, eta aldiz El Beni departamentukoa izan zen baxuena, % 1,9). Batzuen eta besteen arteko inbertsio-aldea hainbat aldagairen araberrakoa da (biztanleriaren zenbatekoa, lortutako baliabideak, e.a.).

Hala ere, Gregoria Apaza erakundeak eta Autonomien Ministerioak, OXFAM<sup>14</sup>en laguntzarekin, landutako datuen arabera, egikarituaren ehunekoa (9 udaleko lagin bat oinarritzat hartuta) % 1,21ekoa baino ez da, eta batezbesteko horren gainetik nabarmentzen dira Cochabamba eta El Beniko genero-aurrekontuak, 2,81 eta 2,23ko ehunekoekin, hurrenez hurren. Sakonago aztertu beharko litzateke emaitza hori balioesteko nolako eragina izan duen aipaturiko erakunde horiek azken urteetan egin duten lanak.

Idazlan honetan genero-ikuspegia duen aurrekontutzat jotzen dugunari dagokionez, iruditzen zait azpimarratzekoak direla genero-

ezberdintasunaren aurka eta Boliviako emakumeen aldeko borrokan funtsezko bi elementu:

- ❖ Alde batetik, 348 Legea, emakumeei indarkeriarik gabeko bizimodua bermatzekoa, 2013an onetsi izana eta haren aplikazioa. Arau hori garatzen duen 2145 dekretuak agintzen du herritarren segurtasuneko GGiko gastuaren % 30 erabili behar dela indarkeria jasaten duten emakumeentzako zerbitzuak sortzen eta hornitzen. Gobernuak dekretuz ebatzi zuen departamentu mailako aurrekontuen % 1 aplikatu behar zela lege hori ezartzeko. 2014an eraman zen praktikara hori, eta departamentu guztietan emakumeentzako babes-etxeak sortzera bideratu da gehienbat aurrekontua. Halaz eta guztiz, urtebete baino ez zuen egin indarrean aurrekontu horrek, eta zenbait lekutan ez da bete; beraz, ez da egiazko aurrerapausorik eman lege horrekin eta, ondorioz, emakumeen eskubideei dagokienez ere ez.
- ❖ Bestetik, 2009ko Konstituzioaren baitako indigenen autonomia-gobernuak leudeke, Boliviako nazio-aniztasunaren adierazpen moduan. Haren baitan "Jatorrizko Komunitate Lurrak" (TCO) aitortzen dira eta, bidenabar, indigenek baliabide naturalak baliatu ahal izatea (171 I artikulua). Figura hori, 169. Hitzarmenak eta Laborantza Erreformaren Zerbitzu Nazionalaren Legeak, 1996koak, (INRA Legea, 1715 zenbakiduna) lurralde indigenez diotena oinarritzat hartuta, lurraldeen onbideratze kolektiborako prozesuari ekin zitzaion herri indigenen mesedetan. Geroztik, Autonomien Esparru Legeak (031 zenbakidunak), 2010ekoak ahalbidetu du autonomia horiek TIOC edo indigenen lurraldeetan ere eratze aukera, legeak ezartzen dituen kontsulta eta baldintzei buruzko arauak eta prozedurak betez. Halaber, lege horretan bertan hainbat artikulua jasotzen dira prozesu horretan genero-ekitatea aintzat hartu beharra ezarriz, genero-ezberdintasunak erauzteko helburuarekin<sup>15</sup>.

INRA-Laborantza Erreformatarako Institutu Nazionalean diren aurrekarien arabera, “1996 eta 2009 artean 149 TCO onbideratu ziren, 15.5 milioi hektareako hedaduraz guztira; hori da herrialde osoan onbideratuta eta tituluz hornituta dagoenaren % 41.2, guztira 37.7 milioi hektareako hedadura baita (Chumacero, 2010). Gaur egun jatorrizko indigenen laborantza-lurralde (TIOC) legez aitortuta dauden lurraldeak, Estatuak lurralde fiskaltzat jotzen dituenak dira gehienbat, non herri indigenek behinolako okupazioa eta jabetasuna baitute<sup>16</sup>.

Lurralde indigenek eta hango biztanleek egikaritu behar duten prozedura juridiko hori (Indigenen Autonomia Estatutuak, haien artean) luzea eta konplexua izaten da. Horren adierazle da 2010ean AIOC bilakatzeko interesa azaldu zuten 18 herrietatik 11k baino ez dutela helburua lortu udalerrien bidetik, bederatzik goi-lurraldeetako udalerrietan eta bik Chaco aldeko behe-lurraldeetan.

Gainera, bada beste larrigarri bat: multinazionalak gobernu zentralari egiten dioten presioaren arazoa, baliabide naturalak dituzten hainbat lurralde kudeatu nahi dituztelako. Lurralde horietako gehienak behinolako lurralde indigenetan aurkitzen dira eta, ondorioz, botere-borroka eta interes ekonomikoen lehia-gune bihurtzen dira, bertako indigenen eskubideen kalterako<sup>17</sup>. Izan ere, hainbat proiektu ontzat eman ditu gobernu zentralak aintzakotzat hartu gabe Nazioarteko Lan Erakundearen 169. Hitzarmenak, Estatuak berretsia duten arren, behartzen duen onarpen librea, aurretiazkoa eta informatua<sup>18</sup>. Horrelako ekinbideen ondorioa da populazio horien eskubideen urraketa, eta bereziki emakumeena, geroago ikusiko dugun moduan, haiek izaten baitira askotan ustiapen proiektu horiek gutiziatzen dituzten gune naturalen zaintzaz arduratu behar izaten dutenak.

Testuinguru horretan txertatu nahi da genero-ikuspegia prozesuan, hain zuzen ere kuota politikoen alorrean lortutako aurrerapenak aurrerapen, oraindik emakume indigena bakanak baitira erakunde indigenetan eta sekzio-gobernuetan arduradun postuak dituztenak. Beraz, zaila egiten da emakume indigena eta laborarien eskubideen agenda txertatzea aurrekontu publikoa duten tokiko gobernuen programen baitan.

Osagarri modura, 2013az geroztik, Colectivo Cabildeo Fundazioa eta REMTE bezalako erakundeak hasi dira ikuskatzen zer gertatzen ari den zerga-sistemearekin, sistema horretako genero-ezberdintasunak agerian jartzeko, eta genero-azterketa hori txertatzen saiatzeko zerga-sistema horretan kausitzen diren genero-arraildurak murrizteko estrategiaren baitan.

Zerga-justiziaren ikuspuntutik, Boliviako zerga-sistema tresna garrantzitsua da, politika publikoetarako diru-bilketaz arduratzen den heinean barau aurrera eramateko. Egungo sistema erregresiboa da, eta horregatik sakondu egiten ditu biztanle-multzoen arteko ezberdintasunak, enplegu normaldua izateko aukeren, diru-sarrerren mailaren, kontsumo-ereduen eta inguruabar pertsonalen arabera. Horrek, bide batez, genero-ezberdintasunak areagotu egiten ditu.

Bolivian kontuan izan behar diren argibide batzuk ondorengoak dira:

- ❖ Milioi bat emakume baino gehiago da “etxeko lanetan” ari dena ordaintzarik gabe.
- ❖ “Diru-sarrerarik gabeko” pertsonen artean, emakumeak % 24 gehiago dira gizonak baino.
- ❖ BEZak bereziki kalte egiten die emakume pobreei, etxeko arduradunak direnez, eta sektore informalean ari diren eta diru-sarrera txikiak dituzten emakumeei.

Erregio mailan darabilen eta aipaturiko antolakundeek lana koordinatzen duen bere GIA programaren testuinguruan Fiskalitatea eta genero-ekitateari buruzko lan-ildo berri bati ekin zaio. Horrek esan nahi du genero-ikuspegia itsatsi behar dela zerga-politikan. Zerga-politika eta garapenari buruzko lantaldean egindako azterlanak<sup>19</sup> hiru alor hartzen ditu aztergai nagusitzat:

- ❖ **Zergak:** BEZ, BEZ-EG eta EMZ. Bi alor aztertzen dira: zerga-mota (zuzena/zeharkakoa, progresiboa edo erregresiboa) eta duen zerga-zama (ehunekotan), % 13 eta % 32 artekoa izango dena, hurrenez hurren.
- ❖ **Lan-merkatua.** Emakumeek lan-merkatu formalerako duten sarbide ezberdinak eta haien langabezia- edo lan

prekariotasun-tasa handiak eragin negatiboa du emakumeen gastu-ahalmenean. INE (2016b)-k adierazten duenez, gizonen eta emakumeen diru-sarreretan dagoen batez besteko aldea 658,34 boliviarrekua da emakumeen kontra.

Aldiz, ez dago inolako gobernu-neurririk diru-sarreraren banaketa ezberdin hori gutxitzeko eta emakumeen erreprodukzio-lanaren bitartez sortutako aberastasuna birbanatzeko.

**i Gizarte Segurantzako sistema.** Ez dago emakumeen erreprodukzio lanaren inolako aitorpenik emakumeentzako zerga-politikan eta gizarte-babesean pentsioak lortzerakoan eta osasun-arreta izaterakoan, besteak beste.

Azterlanak agerian ipintzen ditu genero-zeihartasunak, gizonei eta emakumeei trataera ezberdindua ematen zaiela nabarmentzen dutenak eta zer ondorio dakarren horrek hainbat arlotan, esate baterako, lan ordainduan aritu ala ez balioesteko, edo lan ordainduari edo norberaren kontsumo-usadioei zenbat denbora eskaintzen zaien erabakitzerakoan. Balioespen hori egin beharko da egokia irizten den edo sustatu nahi den portaera sozial zein ekonomikoa aintzakotzat hartuz (Stotsky, 2005).

Egia frogatua da Coello eta Fernándezen azterlanak azaltzen duen bezala, badiela genero-zeihartasunak, bai inplizituak (legeak) nahiz esplizituak (gizarte-rolen baldintzapenak), lehenik eta behin gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasuna handitzearen alde egiten dutenak, emakumeek eta gizonek duten abiapuntu ezberdina ez dutelako kontuan hartzen eta, bide batez, balizko berdintasunezko trataera emanez emakumeei kalte egiten zaielako nagusiki, egoera ekonomiko eta baliabideak eskuratzeko ahalmen apalagoa dutelako.

Beraz, premiazkoa da agerian jarraztea emakumeen papera eta haiek zerga-bilketako sistemari egiten dioten ekarpena, gizonek egiten dutenaren parekoa, aitortuz gainera badela baita ere erreprodukzio-lan bat, ez dena aitortzen ez zenbatesten, sistema ekonomikoaren baitan, nahiz honen iraupenari laguntzen dion.

Bestalde, beharrezkoa da ikuspegi feminista duten azterlan ekonomikoak egiten jarraitzea, diru-bilketa eta inbertsio publikoaren



analisia jasoko dutenak, analisi-kategoria berriak landu eta eskuragarri ipintzeko, emakumeak diru-bilketaren eta gastuaren subjektu bezala aintzat hartuak izan daitezzen, aitorpen horren gabeziak zuzenean eragiten baitu Boliviako politika publikotik bultzatzen diren gizartearen ezberdintasunetan.

Gaur egun, OXFAM ari da Bolivian ahalegina egiten aurrekontu publikoetan genero-ikuspegia aplikatzeko ikerketaren ariketa horretan sakondu dadin, hausnarketarako iturburu funtsezkoetako bat delakoan. Horretarako, lehen aipatu dugun GIAen esperientziaren sistematizazioa lantzen ari da, eta datozen hilabeteetan argitaratuko du, erronka berrien inguruan gogoeta egiten jarraitu ahal izateko, eta horien artean zerga-aldagaiaren inguruan, estatuan onartzeaz den itun fiskal berrirako bereziki garrantzizkoa izango baita.



© Oxfam Intermón

## 7. GENERO IKUSPEGIDUN AURREKONTUEN ESPERIENTZIA EUSKADIN: BILBO ETA DONOSTIAKO KASUAK.

3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrikoa, onetsi zenetik botere publikoek beretua dute Estatuaren baliabide eta tresna politiko guztietan generoa transbertsalizatzeko betebeharra. Arau horren aldarrikapenaren ondorioz, 2008az geroztik legeak egiten eta ekintza zehatzak lantzen hasi ziren autonomia-erkidego batzuk: Kantabria, Kanariak, Katalunia, Galizia, Errioxa, Extremadura, Gaztela eta Leon eta Gaztela-Mantxa.

Alor horretan, Andaluziako Junta izan zen nazio mailako aitzindaria prozesua abiarazterakoan. Erkidego horrek 2003an ekin zion aurrekontuaren bitartez genero-ikuspegia txertatzeko estrategiari, generoa politika publikoetan transbertsalizatzeko bide osagarria eta beharrezkoa zela iritzita, eta gure herrialdeko administrazio aurreratuenetakoa izaten jarraitzen du haren aplikazioan.

Estrategia hori aurrera eramateko lehen baliabideak 18/2003 Legean, Neurri Fiskal eta Administratiboetakoan, aurkitzen dira, funtsezko bi mugarri jasotzen baititu hark:

1. Legezko betebeharra ezarri zuen aurrekontuekin batera [genero-eragina neurtzeko txostena](#) aurkez dadin.
2. Hori egin eta onesteko [batzorde](#) bat eratu zuen Ogasun eta Administrazio Publikoko Kontseilaritzan mende.

Araudi hori abiarazi ondoren, ebatzi zen baliabide teknikoak landu behar zirela genero-ikuspuntutik aurrekontuen azterketa egin ahal izateko. Horretako, metodologia bat landu zen, hain zuzen *Metodología G<sup>20</sup>* deitua, eta oraindik indarrean eta hedatze bidean dagoena.

Aurrekari horrekin eta Euskal Autonomia Erkidegora begira jarrita, 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunekoak, ezartzen die euskal administrazio guztiei berdintasun-politikei ekiteko berariazko aurrekontu-esleipenak egiteko betebeharra (14. artikulua): *Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan.*

Berdintasun-politikei azken urte hauetan egin zaien jarraipenak ahalbidetu du agerian ipintzea, araututako betebeharrak horri dagokionez, hainbat eragozpen haren betearazpenerako; esate baterako, berdintasun-plana badutela azaltzen duten tokiko administrazioen % 56k baino ez du egiaztatzen erakunde horrek badutela bere aurrekontuetan berariazko kontu-sail bat berdintasunerako. Foru-administrazioek bai esleitu dutela aurrekontu hori, eta gorabehera batzuekin bederen EAEko Administrazio Orokorrak ere bete du bere egitekoa.

Berdintasunaren euskal legeak agintzen duenari jarraituz, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planak bere 2. ardatzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Gobernantzari buruzkoan, esaten du: “aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatuko da”.

2012tik aurrera, aztergai izan ditugun bi udaletako Berdintasun sailetan hainbat dokumentu tekniko egin dira, batik bat diagnosiak eta inkestak, zerbitzu publikoen erabilpenari buruz gizonek eta emakumeek duten egoera neurtu ahal izateko (zehazki Donostian). Hori dela eta metodologia sorberri bat garatzen hasi da pausoz pauso aurrekontu publikoan genero-ikuspegia txertatzen ari dena.

Araudi- eta erakunde-mailan, 2016an, Bilbo eta Donostiako udaletako arduradunekin esperientzia-trukaketa bat egin zuen Boliviako ordezkari-talde batek eta OXFAMeko lantalde teknikoak, EAEk bultzaturiko gizarte-eraldaketarako sentsibilizazio kanpainaren baitan.

Bisitaldi horretan bildutakoetatik, esan daiteke bi udal horiek Andaluziako Erkidegoan genero-ikuspegia aurrekontu publikoetan

txertatzea aplikatu ahal izateko lortutako esperientziaz baliatu direla. Batez ere metodologiari dagokionean eta genero-ikuspuntutik aztertu behar diren programen lehentasunak zehazterakoan. Nolanahi ere, udal bakoitzak bere bilakaera berezia eduki du nork bere udaleko aurrekontu-politikan genero-ikuspegia aplikatzeko orduan.

Bilboko kasuan, azpimarragarriak dira honako atal hauek genero ikuspegidun aurrekontuak lantzeko prozesuaren baitan:

1. Ez dago metodologia idatzirik udal mailan (Andaluziako Juntaren kasuan bezala), baizik Finantza eta Aurrekontuen Sailarekin negoziatu egin da. Kontu-sailka banandutako aurrekontua abiapuntutzat hartuta lan egiten da programa zehatzak aztertuz.
2. Gai hori txertatzeko lana Berdintasun Sailari dagokio, eta hura koordinatzen da gainerako sailekin. Adibidez, informazio, estatistika eta finantza sailarekin, udalaren baitan landutako gai programatikoetako ekimenen bilakaeratik eratortzen diren datuetan generoaren arabera banantzea egiteko.
3. Ez da diagnosi orokor bat egin Bilboko udalerriko genero-egoerari buruz. Halaz eta guztiz, programa eta zerbitzu jakin batzuetan jaso egin dira populazioaren beharrak generoka bananduta, hainbat baliabide erabiliz, adibidez, erabiltzaileen gogobetetasun-inkestak generoka bananduta; esate baterako, garraioa: erabiltzaileen gogobetetasun-inkesta.
4. Langileekin genero ikuspegidun aurrekontuei buruzko prestaketa berezi bat egin da. Hala ere, prestaketa hori borondatezkoa da. Beraz, ez da ziurtatzen metodologia hori txertatuko denik udalaren baitan egikaritzen diren aurrekontuetan.
5. Urte bakoitza amaitzean, eragin-ebaluaketak egiten dira (2015az geroztik).

Donostiako udalak, berriz, genero ikuspegidun aurrekontuen aplikazio-prozesuari 2013ko ekainean ekin zion, Berdintasun Sailak lan-jardunaldi bat antolatu zuenean Andaluziako Juntak gai horretan

zuen esperientzia ezagutzeko (lehen, laburki bederen, azaldu dugun moduan)

Jardunaldian arduradun politikoek eta zuzendaritzako langileek hartu zuten parte, Programazio, Ikerketa eta Aurrekontu Unitateko teknikariekin batera, eta hainbat sailtako aurrekontuak lantzen ardurak dituzten teknikariekin batera. Handik abiatuta, hainbat idazlan tekniko egin ziren<sup>21</sup>.

- ❗ Emakumeen eta gizonen egoeraren diagnosia Donostian, 2013an. Dokumentu horrek agerian ipintzen ditu zenbait gai, bien arteko ezberdintasunaren ondorio direnak: goranzko segregazioa kargu publikoetan; genero-harremanei buruzko iruditegian aldaketa gutxi; herritar-segurtasunik ezaren sentipena (emakumeengan bi bider handiagoa gizonengan baino); e.a.
- ❗ 2014an genero ikuspegidun aurrekontuak egiteko gomendioak. Andaluziako ereduari jarraiki, baina Donostiako udalerriaren errealitatera moldatuz.
- ❗ Udal-aurrekontuen analisi-txostenak genero-ikuspegitik.

Erabiltzen den metodologia honako parametro hauen arabera da:

1. *Aurrekontu orokorrak*. Horietan barnebiltzen dira Udalaren aurrekontua, erakunde autonomoena eta % 100ean udalaren partaidetza duten sozietateenak. Lehen hurbilketa bat izaten da programek aurrekontu orokorraren baitan duten eragin erlatiboa aztertzea.

2. *Eragina-gaitasuna*. Atal horretan berdintasuna sustatzeko gaitasun handiena duten aurrekontu-programak aztertzen dira. Horretarako, fitxa bat osatzen da ondorengo atal hauek puntuatuz:

- Nortzuk diren hartzaileak: programak norbanakoengan eragiten badu.
- Gaitasuna: programa kudeatzen duten langileen gaitasuna gastuaren xede diren politikak erabakitzeke.

- Eragina: gastuaren xede diren politikek zenbateko gaitasuna duten genero-harremanetan eragiteko.

- Inplikazioa: emakume eta gizonen berdintasunarekiko sentiberatasuna aurrekontu-programan inplikaturik dauden langileengan.

3. Prestakuntza. Funtsezko baliabidea da, hain zuzen ere gaiarekiko sentiberatasuna areagotzen duelako eta gainera behar besteko gaitasun teknikoa eta tresnak ematen dituelako funtzionarioen inplikazioa hobetzeko berdintasun-politiken transbertsalizazioan.

4. *III. Berdintasun Planeko programen zerrenda.* Jarduketa horrek lagunduko digu aztertu ditugun programetarako gomendioak eta ekinbide berriak proposatzen.

Udal horretako berdintasun-saileko arduradunarekin izandako elkarrizketatik sortu ziren irizpen partekatueta batzuk hauek izan ziren:

a) Aurrekontuen txertaketa-prozesua udalean mailaka egiten ari da, eta udalaren gainerako sailetan barrena jarraitzen du une honetan, batez ere finantza-departamentuan. *“Hasiera batean, prozesua nekagarria da, baina behin analisiaren logika barneratzen dutenean, dinamika horri ekiten diote esfortzu handirik gabe, argi baitago programek ezberdinki eragiten dietela emakumeei eta gizonei gure udalean ere”*.

b) Aurrekontu publikoek genero-eragin berezitua dute programa guztietan eta gizatalde ezberdinek (pertsonek, migratzaileek, adinekoek, gazteek edo haurrek) dituzten baliabideetan. Horregatik, adierazleak sortu dira generoaren eragina neurtzeko egikaritzen diren programa eta proiektuetan, batez ere udalaren berdintasun-planen helburuekin zerikusia dutenetan, generoen arteko arraildurak murriztera bideratu behar baitute haiek.

Lehentasunezko programak honako irizpide hauen arabera zehaztu ziren:

- *Aurrekontu-bolumena*: ikusi zer programa diren pisu erlatibo handiena dutenak, kapitulukako sailkapenaren arabera (hau da, ikusi zein kapitulutan gastatzen den gehiago), eta horrek zilegitu zigun 1. kapituluaren eta giza baliabideen politikaren azterketa egitea.
- *Eragina-gaitasuna*: zuzendaritza guztiei galdetegi bat helaraziz gastuaren xede diren politikak (gaitasuna) erabakitzeko programa kudeatzen duten langileen gaitasuna jakiteko, politika horiek genero-harremanetan duten eragina, aurrekontu-programarekin zerikusia duten langileek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz duten sentiberatasuna, eta gastuaren xede diren politikek pertsonengan eragin zuzena ote duten ezagutzeko.

GASTU publikoari begira egin den azterlana, rolen arabeko genero-diskriminazioa estrategikoki erauzteak eta emakumeen eskubideak udalean indartzea bilatzen duten gizarte-programa guztiak aintzakotzat hartuz.

2014ko txostenean aurrekontu-programetara bideratutako zenbatekoak aztertu ziren, gastu-xedearen arabera sailkatuta. Baina 2015eko txostenean metodologia aldatu egin zen. Zehazki, aztergai ziren programen lehentasunak gastu-atalen arabera finkatu ziren, honako udal-zuzendaritzari hauek (eta, bide batez, haiek kudeatzen dituzten aurrekontu-programak) aukeratuz:

- Azpiegiturak eta hiri-zerbitzuak.
- Mugikortasuna.
- Ongizate soziala.
- Hezkuntza eta gizarteratzea (berdintasuna, lankidetzak, gazteria, e.a. barne).
- Herritarren partaidetza.

- Kultura.

Horrek egokiera eskainiko digu 1. kapitulua (langileen gastua) eta giza baliabideen kudeaketa aztertzeko, guztizko gastuaren zati handi bat bereganatzen baitu atalak. 2015eko txostenean ikusten da aurrekontu-programen kapitulukako batura egiterakoan, 2. kapituluak (ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak) duela zenbatekorik handiena, aurrekontuaren % 36,7 bereganatzen baitu, oso hurbil duelarik 1. kapitulua (langileen gastuak) % 36,8rekin.

Bide batez, zenbait programa hautatu dira, esaterako hezkuntza eta gizarte-sustapena (% 3,89 2014an, eta % 3,84 2015ean), edo herritarren partaidetza (% 0,21 2014an, eta % 0,25 2015ean), xedetzat dituzten politikek zuzenki eragiten dutelako pertsonengan, hau da, baliabideak (parte-hartzeko, hezkuntzarako, aisialdirako, e.a.) eskuratzeko haiek dituzten aukeretan; programa horiek kudeatzen dituzten teknikariek jarduteko gaitasun neurritsua dutelako aurrekontua nola gastatzen den erabakitzerakoan (gaitasuna).

Bestalde, aurrekontu publikoaren zati handi bat (% 22) bereganatzen duen azpiegituren atala herritar guztiengana bideratzen da. Halaz eta guztiz ere, egindako azterketaren arabera, garrantzizkoa da generoari buruzko pare bat zehaztaperen azaltzea: alde batetik, nola segurtasuna funtsezkoagotzat jotzen duten emakumeek gizonak baino. Bestetik, mugikortasunari dagokionez, garraio publikoa gehienbat emakumeek erabiltzen dute: ehuneko hirurogeita hamaika dira erabiltzaileen artean, eta gizonak ehuneko hogeita bederatzi. Generoaren ikuspegitik interpreta liteke hori, ezberdintasun ekonomiko edota kulturalen ondorioa baita zer erabilera ematen zaion kotxeari.

Gainera, gaiari buruzko prestakuntza eman zaie udalaren hainbat departamentutako langileei 2015 arte. Berdintasun-prestakuntza duten langileen ehunekoa, zuzendaritzen arabera eta sexuen arabera bananduta, kontuan hartu eta jarraipena egin behar zaion adierazlea izango da.

Beste hainbat erakunderekin koordinazioa antolatu da baita ere: Emakunde, Foru Aldundia eta Bizkaiko Toki Agintaritzen



Federazioarekin. Baina ez da ezagutzen erakunde bakoitza gai horren inguruan egiten ari dena, eta ez dira koordinatzen hori buruzko jarduketak elkarren artean.

Azkenik, 2015etik aurrera urtero egin dira udal-aurrekontuen azterketa-txostenak genero-ikuspegitik.

Esperientziaren azalpenetik ondoriozta dezakegu bi udaletako esperientzia berdintsua bada ere, Donostiako Udalak baliabide gehiago prestatu dituela bere aurrekontu publikoan genero-ikuspegiak duen aplikazioa egikaritu eta neurtzeko. Hala eta guztiz ere, Boliviaren aldean, bi udal hauek hastapen-prozesu batean daude oraindik egitasmoa abiarazteko, eta ez dute elkarlotu aurrekontu publikoaren prozesu parte-hartzailearekin ez eta fiskaltza politikarekin, Boliviako kasuan egiten den moduan.



© Oxfam Intermón

## 8. IKASBIDEAK ETA ERAGOZPENAK GIA- EN PROZESUAN

Gai horri buruzko errealitate eta ibilbide ezberdineko bi herrialdetako esperientziak direnez aztergai dokumentu honetan, bananduta azalduko dira lurralde bakoitzean garabide horretan izandako aurrerapausoak eta atzerapenak.

Lehenik, Boliviako esperientzian kausitu diren praktika zuzenak azalduko dira, eta ondoren Euskadiko hirietan jasotako ikasbideak.

### Bolivia

Azken hamar urte hauetan egindako lanaren ondoren Bolivian GIAk garatzeko prozesuan praktika zuzentzat jotzen dira ondorengo jarduketa hauek:

- 1. GIAk Lantzeko Mahai Nazionala** Koordinazio-esparru hori sortzea esperientzia positibotzat hartu beharrekoa da. Lantalde horren jarduerak ahalbidetu du gaian aurrerabide bat egitea haren kide izan ziren erakundeen arteko “eraikuntza kolektibotik” abiatuz, elkarriketaren bidez aurrekontuen azterketarako metodologia bat sortuz, elkargoetako bakoitzaren praktika eta esperientzia abiapuntutzat hartuta ezagutzak partekatzeko eta analisi-kategoriak hobetzeko proposamen horren egikaritzapenean.
- 2. Aurrekontu parte-hartzaileak.** Genero ikuspegidun aurrekontuak abiarazi ziren partaidetza-aurrekontuen proposamena gauzatzen hasten zen une berean. Planifikazio-prozesuetan, eta beren-beregi eskualdeko eta tokiko garapen-planetan (POAs) eta politika publikoen aurrekontuetan emakumeek izan duten partaidetzak ahalbidetu du emakumeengandik eta emakumeentzat sortutako berariazko proposamenak txertatzea, emakumeentzako aurrekontuak eskatzeko.

Beraz, aurrekontu parte-hartzaileetan eta genero ikuspegidun aurrekontuetan emakumeak trebatzea oso onuragarria izan da GIAen metodologia aplikatzea maila deszentralizatuan eta toki

bakoitzean politika publikoetan genero-berdintasuna lortu ahal izateko.

- 3. Geneko ikuspegidun aurrekontuetan prestakuntza emakume-antolakundeetan.** Emakumeak gai horretan prestatu izanak ahalbidetu du eraginkortasuna sortzea berdintasunerako gastua egikaritzekoan herritarren ikuskaritzaren bitartez.

Aldi berean, araututa dauden kontuak emateko prozesuen bidez, jarraipena egin ahal izan dute eta egiaztatu genero-gaietarako izendatuta dauden aurrekontuetan zenbateko gastua egikaritu den eta nolako eragina izan duen leku bakoitzean.

- 4. Genero-eraginari eta kontuak emateari buruzko txostenak.** Kontuak emateko txostenek eta adierazleez baliatuz gastu publikoari buruz egindako azterlanek diru publikoen erabilpenaren gardentasuna biderkatzea ahalbidetzen dute, eta jakitea zein kontu-sailetara bideratzen den gastu publikoa, eta gainera kausitzea diru horretatik zenbat bideratzen den generoa dela eta dauden ezberdintasun-arraildurak murriztera.

GIAk txertatzeko prozesuan aurkitu diren zailtasunei dagokienez, eta haiek denboran izan duten bilakaerari buruz, Boliviako elkargoek ondorengo hauek azpimarratzen dituzte:

- 1. Informazioaren prozesaketa:** datuen prozesaketa da Bolivian GIAen aurrerapenaren egoera neurtzeko dagoen arazo handietako bat. Azken urte hauetan genero-gaietara bideratutako aurrekontuaren hurbilketa bat egin da. Hala ere, ezin da neurtu zehazki aurrekontu publikoetan zenbat milioi erabili diren genero ikuspegidun gastu errealean, adierazle banandu baliagarriak falta direlako eta Ministerioen politiketan eta programetan aurreikusietatik egikaritu dena gutxi izan delako. Horrek ezinezkoa egiten du zehatz-mehatz jakitea zenbatekoa izan den genero-gaietara bideratu den aurrekontua eta, bide batez, haren eragina doitasunez neurtzea.

Horregatik, premiazkoa da gastu publikoa neurtzeko berariazko estatistika-adierazleen sistema hobetzea. Metodologia estatistiko berria proposatu da emakumeengana bideratutako politika publikoen aplikapena neurtzeko erak finkatzea lortzeko, “emakume” hitz-giltza bat erabiliz haiengana bideratzen den gastu guztia iragaziko lukeen software baten bidez. Halaz eta guztiz, sistema hori hobetu beharra dago, ez baitu argiro adierazten haietan jasotzen den genero-jarduketetara bideratutako aurrekontua (ez baitira soilik berariaz emakumeentzat direnak).

1. **Kudeaketa onaren falta eta gastu publikoa egikaritzen eraginkortasunik eza.** Horrek esan nahi du aurreikusitako aurrekontua ez dela egikaritzen. Hori dela eta, genero-gaietara bideratzen den aurrekontu eskasa (% 1 eta % 2 artean, batez beste), ez da konplitzen, eta horregatik ez da beharrezko ikusten hura gehiagotzea ondorengo ekitaldietan ere.
2. **Unibertsitate- eta erakunde-mailako prestakuntza.** GIAen gaia emakumeen antolakunde-multzo baten eta erakunde publiko zein pribatu batzuen baitan geratu da; horiek badute jakinbidea baina, aldiz, UNIFEM RArean ildoetan proposatzen zen eran, ez da unibertsitateko prestakuntzan eta curriculumetan txertatu, eta horrek eragozten die prestatu nahi duten edo gai horietan sakondu nahi luketen gizon eta emakume gazteen belaunaldi berriei ezagutza horretan aurrerapausoak ematea.

Horrez gain, erakunde publikoetako langileak gaitzea behar-beharrezkoa da sentiberatasuna izan dezaten tresna hori txertatzearen garrantziari buruz, nazio zein tokiko politikan generoaren transbertsalizazioa errotzeko prozesuaren osagai legez.

### **Euskadi: Bilbo eta Donostia**

Genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko euskal esperientziari dagokionez, aipatu udal horietako langileek honako elementu positibo hauek azaltzen dituzte:

- **Berdintasun-planak erabiltzea** presio-tresna bezala baliabide ekonomikoak eskuratzeko eta, bide batez, haiek egikaritu eta burutzeko aurrekontu-sailak edukitzea, aurrekontuak jarrai dezan eta, ahal den neurrian, handitu dadin eginahalak egitea, plan horiek egikaritzetik eratortzen diren emaitzek aditzera ematen dituzten beharrianen arabera.
- **Koordinazioa eta etengabeko lankidetzak** udaleko finantza-alorrarekin. Estrategikoa izan da haien konfiantza irabazi izana eta departamentu horien eta bertako langileen borondate politikoa lortu izana aurrekontuen sorburuan generoa txertatu ahal izateko.
- **Genero-gaietako gastuaren analisisia** programak gastu kapituluaren arabera irizpidez aztertzea, ahalik eta aurrekontu gehien ikuskatu ahal izateko. Programa guztiek ez dute eragin berbera genero mailan, baina eraldaketarako gaitasun handiena duten programak soilik aztertzen baditugu, gasturik handiena egiten duten programak kanpoan geratzen dira. Horregatik, gastua kapituluka behatzeko irizpide hori eraginkorragoa izaten da udalaren gastua oro har aztertu nahi denean.
- **Genero-eraginaren txostenak egitea** aurrekontu publikoetan. Aurrekontuetako diru-sailetan berdintasunera bideratutako gastuaren jarraipena egitea zilegitzen du, eta aurreikusitako gastua egikaritu dela egiaztatzea.
- **Erabiltzaile-inkestak eta udalaren informazio-sisteman datuak banandu ahal izatea.** Zerbitzu publikoen erabilpenean dauden ezberdintasunak agerian ipintzen dituzte, eta gizonen eta emakumeen praktiketan dauden aldeak, hainbat alorretan dauden ezberdintasunen ondorioz, batez ere alor ekonomikoan, sozialean eta kulturean.

Esate baterako, adinekoentzako etxez etxeko laguntza-programak, pertsona ororentzat onuragarria izanik ere, genero-eragin handiagoa du, oraindik emakumeak direlako familien baitan zaintza-lan eta jarduketaz arduratzen direnak.

- **Udal-esparruetako langileen prestakuntza.** Sentsibilizatzea funtsezkoa da, azken urte hauetan gai horretaz arduratu ez badira ere teknikariak.

Eragozpenei dagokienez, Boliviako kasuan esaten zenarekin bat datoz. Honako elementu hauek hobetu beharra proposatzen dute:

- **Berdintasunera bideratutako gastua egikaritu.** Funtsezkoa da berdintasun-plan ezberdinetara bideratutako kontu-sailak egikaritzea, gastua justifikatu eta handiagoa eskatu ahal izateko. Azken ekitaldi honetan, Donostian lortu da hainbat programatarako kontu-sailak handitzea egindako gastua justifikatu ondoren.
- **Genero-adierazleak:** Beharrezkoa da adierazleen kopurua hobetu eta ugaritzea gastu publikoa modu eraginkorrean neurtu ahal izateko. Halaber, sistematizatu egin behar da metodologia lantzeko esperientzia, hura gero elkarrekin partekatu, hausnartu eta hobetu ahal izateko taldeen artean.
- **Langileak prestatzea eta sentsibilizatzea** erakunde publiko zein pribatuetan. Sentsibilizazioak goraka egin badu ere, oraindik ez da nagusitu berdintasun formalaren ikuspegiak errealitateari gaina hartzen baitio.



## 9. GOMENDIOAK

Euskal programa honetan parte hartu duten elkargo eta erakundeek artean izan den elkarriketa aberasgarriaren ondoren, ikasbide batzuk islatu dira bi lurraldeetan genero ikuspegidun aurrekontuak lantzerakoan bizi izandako esperientzien eta arduren ondorioz, eta egin ahal izan dira hainbat proposamen estrategia horretan saiatzen eta sakontzen jarraitzeko politika publikoaren bidez genero-arraildurak murrizten joateko.

Sistema ekonomikoak pairatzen duen krisi-egoera honetan gizarte- eta genero-ezberdintasunak benetakoak eta zoritxarrez Mendebaldeko gizarte guztien baitan ematen badira ere, alde nabarmenak kausitzen dira aztergai izan ditugun bi testuinguruetan eta bi gaietan: tokiko gobernuetako GIAetan, hau da genero-ikuspegiaren aplikazioan, eta autonomia- eta deszentralizazio-prozesuetan (Boliviako kasuan bereziki Indigenen autonomiari buruzkoan). Horregatik, ebatzi da egokiena izango dela bi gomendio-epigrafe berezitu osatzea; lehena, gobernuetan oro har geroari dagozkion aurrekontuak aplikatzeko prozesuarekin zerikusia duten gaietarako, eta bigarrena Bolivian autonomia indigenak eratzekeo prozesuaren aplikazioan eta egikaritzean genero-ikuspegia txertatzeko gomendioak biltzeko.

### 9.1. Gomendio orokorrak genero-aurrekontuetarako eta genero-justiziarako.

Boliviako eta Euskadiko testuinguruetan bildutako esperientziaren ondotik, zerga-sistema bidezko eta ekitatiborantz aurrerapausoak ematea proposatzen da, zerga-politika eta gastu publikokoa era koherentean antolatuz emakumeen beharrian estrategiko eta praktikoekin, eta hauek beren aldetik lurraldearekin, berdintasuna eta bizitzaren iraunkortasuna lagunduko duten politika publikoak prestatzeko.

Hori dela eta, jarduketa-ildo berriak, adibidez zerga eta genero-justizia, gehiago landu behar dira politika egiteko eran paradigma-

aldaketari laguntzeko, egun nagusi den sistema patriarkalean emakumeek egiten duten erreprodukzio-lan guztiak aintzat hartuz. Horrekin batera politika publikoen diseinua egin behar da, berdintasunaren alde jokatzuz, lehentasuna emanez pertsonen bizimodua zuzentasunez, berdintasunez eta ingurumenarekiko solidaritatez egitea lortzen lagunduko duen sistema ekonomiko eta sozial bati.

Aldaketa horiek erdiesteko, honako gomendio hauek proposatzen dira hiru esparrutan:

### Nazioko eta tokiko gobernuak

- ❖ Berariazko genero-adierazleak mantendu eta ugaritzea estatistiken informazio- eta erregistro-sisteman, politika publikoen eraginkortasuna eta efikazia hobetu ahal izateko, genero-arraildurak murrizte aldera.
- ❖ Analisi-kategoriak berrikusi eta (behar izanez gero) ugaritzea aurrekontua aztertu ahal izateko, bai diru-bilketaren ikuspuntutik (diru-sarrerak) eta bai inbertsio publikora bideratutako gastuaren ikuspegitik, emakumeengana eta/edo genero-ezberdintasuna murriztera bideratzen denean.
- ❖ Prestatu eta aurrekontu publikoen analisi-metodologian txertatu berariazko neurriak genero-zeihartasunak, bai esplizituak eta bai inplizituak, murrizteko zerga-politikan (batez ere Boliviako kasuan, onestear baita itun fiskala).
- ❖ Aintzat hartu eta agerian ipini ezkutarazten den erreprodukzio-lana, emanez, esate baterako, onura fiskalak, zerga zuzenen murrizketak bizitzaren zaintza eta sostengurako lanak egiten dituzten pertsonentzat (oraindik ere gehienetan emakumeek egiten baitituzte).
- ❖ Emakumeen laneratzea sustatuko duten politikak ugaritzea, ekintza positibo eta emakumeen eskubide ekonomikoak indartzeko neurri moduan. Batez ere, zaintzako ardurekin



zerikusia duten emakumeentzat, gizonen eta emakumeen arteko arraildura ekonomikoak murrizteko.

- ❗ Familiako eta laneko bizimodua bateratzeko erraztasunak eskainiko dizkieten programak eta ekintzak sustatzea, familiak (era guztietakoak, monoparentalak, e.a. barne) sortu dituzten emakumeentzat eta gizonentzat, baldintza eskaseko enpleguen mende geratu behar gabe.
- ❗ Berariazko politika eta ekintzak sustatu gizonen esku-hartzea eta erantzukizuna bultzatzeko eta errazteko bizitzaren zaintza- eta sostengu-lanetan, Estatu espainolean PPINA plataformak<sup>22</sup> egiten duen moduan, adibidez.
- ❗ Eztabaidarako esparru berriak sortzeko edo lehendanik badiren esparruetan gai hauek txertatzeko pizgarriak eman, esaterako:
  - Boliviako Genero Ikuspegidun Aurrekontuen Mahaia.
  - Genero Eraginaren Taldea, Emakundek, Euskadiko Udalen Elkartek eta Berdinsareak (udaletako berdintasun-departamenduek)osatzen dutena. Proposamen horren helburua litzateke talde horren baitan aurrekontuekin egiten den lana txertatzea, erakunde-arte ko lanketa bat sortzeko, eta ikaskuntza bateratu bat eta egikaritzapenaren eta genero-eraginaren hobekuntza eraginkorrak izan daitezen tokiko erakundeetan eta gobernuetan.
  - Aurrekontuen eta generoaren inguruko lantalde berriak sortu udaletako departamenduetako langileekin, tokiko politika publikoan genero-ikuspegia txertatzeko analisiak, programak eta baliabideak aberastu ahal izateko.

## Akademia

Proposamen hauek aurkezten dira:

- ❗ Ekonomia feministako ikerlanak sustatu unibertsitate-graduetan eta curriculumetan, eta genero ikuspegidun aurrekontuetako ikastaroak eta espezialitateak, alor zehatz horretan aditu berriak sortu ahal izateko, eta genero-ikuspegia ezartzeko finantza, aurrekontu eta inbertsio publikoen azterketetan.

Gaur-gaurkoz, Bolivian ez dago gai hori lantzen duen unibertsitaterik. Euskadin ere ez; soilik Madrilgo Unibertsitate Konplutentseak du lan-esparru bat genero ikuspegidun aurrekontuen inguruan, gaian saiatu diren hainbat emakume ikerlariren azterlanen esperientzia biltzen duena.

- ❗ Zerga-politiketan genero-ikerketak eta analisiak sustatu eta indartu, batik bat aztertuz:

- Lan-erregimen bereziak.

- Zerga-bilketen ehunekoak.

- Genero-berdintasuna bultzatzen duten enpresa, erakunde eta norbanakoentzako onurak. Euskadiko kasuan, hori ezarrita dago, baina oraindik oso gutxi dira garabidean daudenak.

### Gizarte zibila

- ❗ Esparruak eta ezagutza- eta trukaketa-sareak sortu gaiaren inguruko eragintza politikorako. Gaur egun, ekonomia feministan eta aurrekontuetan azterlanak eta ikerketak egiten dituzten emakumeak badituzten arren, Boliviak eta Euskadik ez dute generoari dagozkion aurrekontuak berariaz lantzen dituen unibertsitate baten sostengurik.

Boliviako kasuan, GIAko Mahai Nazionalak lanean jarraitzen du eta gaiari buruzko lanketan diharduten elkargoen analisi-, sendotze- eta hedapen-lanerako esparru bat da.

Euskadin ez dago horrelako mahairik eta, horregatik proposatzen da eztabaida-, analisi- eta koordinazio-esparruak sortzea erakundeen baitan eta erakundeen artean, plataforma, mahai tematiko eta abarren eredupean, gizarteko zibileko erakundeekin gaiaren ezagutza zabaltzeko, eta eragin politiko handiagoa lortzeko gizarte zibilean, gai horren inguruko masa kritikoa sortzearen.

- ❖ Genero ikuspegidun aurrekontuetan prestaketa sustatzea emakumeen antolakundeetan eta gizarte zibilean oro har, ezberdintasuna agerikoa izan dadin, gizartean erreproduzio eta zaintza-lanak duen garrantzia argitaratu dadin, oinarri funtsezkoa baita gizartearen aurrerapenerako eta balioen aldaketarako gizarte berdintasun-zalea, justua eta bizitzaren jarraikortasunarekin arduratsua izango dena eraikitzeko, pertsonen arteko solidaritatean oinarritutako balioak aintzat hartuz.

## 9.2. Berariazko gomendioak genero ikuspegidun aurrekontuak lantzeko autonomia- eta deszentralizazio-prozesuetan.

Boliviako errealitatera genero ikuspegidun aurrekontuei dagokienean hurbildu ondoren, esan dezakegu ekarpen handi bat dagoela haiek garatzeko prozesuan, eta aurrerapausoak ematen ari direla zerga-gaietan ezberdintasunak murriztu ditzaketen elementu berrietan sakontzeko bidean.

Bestalde, esperientzia hori lotu behar da hasi berria den gobernu autonomo indigenen prozesuarekin eta egiteko horretan emakumeek duten paperarekin. 031 Legeak, Autonomien eta Deszentralizaziorako Esparru Legeak, autonomiarako prozesuari buruzko gorabehera guztiak, mekanismoak eta eskuduntzak finkatzen ditu. II. kapituluko 5. artikuluan jasotzen ditu legearen oinarri diren irizpideak eta haien artean, 13. epigrafean, honela esaten du genero-berdintasunari buruz: *Lurralde-entitate autonomoek bermatzen dute emakumeek eta gizonek Estatuko Konstituzio*

*Politikoan aitortzen diren askatasunen eta eskubideen egikaritze osoa, baldintzak eta bitartekoak sorraraziz gizarte-justizia, aukeren berdintasuna, garapenaren iraunkortasuna eta osotasuna lurralde-entitate autonomoetan, haien gobernuen osaketan eta politika publikoetan, eta funtzio publikoan sarbidea izan eta jardutekoan.* Bestalde, 777 Legeak, SPIE Planifikaziokoak, aurretiazko prozedura osoa zehazten du, eta haren baitan daude garapen integralaren plana eta sektorekako planak, prozesua garatzeko landu behar direnak.

Araubidezko testuinguru horretan, Boliviako konstituziogilearekin abiarazi zen prozesu berri horretan esku-hartze aktiboa aldarrikatzen ari dira emakume indigenak. Zalantzarik gabe, aurrerapausoak eman dira eta politikagintzan eta erabakimena duten esparruetan esku hartzen duen emakumeen kopurua handitu egin da, baita emakume indigenena ere (besteak beste, kuota-legearen aginduz) baina oraindik bizirik diraute dinamika tradizional patriarkalek eta praktika kolonizatzaileek.

Eusko Jaurlaritzak laguntzen duen programaren baitako ekintzen artean, eskualde mailan Chacoko emakume lider indigenekiko topaketa bat egin zen 2016an<sup>23</sup>. Ekitaldi haren memorian, emakumeek azaldu zuten erabaki-esparruetan zeuden emakumeen urritasuna eta gobernu indigenen baitan emakumeen proposamenak jasotzeko aukeren eskastasuna. Gainera, lurraren jabetasunari buruz hitz egiterakoan, adierazten dute *eskualde horretako komunitate laborarietan oraindik gizonezkoen esku dagoela, gizona “etxeko nagusia” dela aitortzeko edo*, eta horren ondorioz sindikatuak aintzakotzat hartzen duen subjektu bakarra hura dela komunitateko bizimodu ekonomiko eta politikoan esku hartzeko. Azalpen horrek jakinarazten du komunitate indigenetan bazterketa hori berresten duen barne araudirik ez dagoen arren “jokamolde tradizionalak zaildu egiten duela onartzea (oso kasu bakanetan izan ezik) emakumeak subjektu politiko eta ekonomikoak direla eta erakunde-mailako ardurak hartzeko gaitasuna dutela”.

Laburbilduz, genero-ezberdintasuna herri indigenen artean ere orokorra dela ematen du. Hori dela eta, erakunde sozialek eta emakume indigenen elkargoek ezbaian jartzen duten autonomien prozesua generoari dagokionean; “Oraindik eskubide asko geratzen

dira bermatzeke gure lurraldeetan”, esaten du Chacoko emakumeen liderretako batek.

Gainera, enpresa transnasionalek, liberalismo ekonomiko muturrekoaren bidez Boliviako gobernuari egiten dizkieten presioak eta manipulazioak daude: lurraldeak okupatzen eta baliabide naturalak arpilatzen saiatu dira, bertako biztanle laborari eta indigenen eskubideak eta interesak eta Boliviako ingurumena aintzat hartu gabe. Eragin berezia izan du horrek emakumeengan, haiek direlako gehienetan lurra lantzen dutenak eta lurraldeetan bizitzen jarraitzen dutenak.

Horregatik, garrantzitsua da gomendio sail bat egitea prozesu horretan genero-ikuspegia aplikatzeko bidean. OXFAMeko teknikariek egindako bileren ondotik, CEDLak eta Boliviako Herri Indigenen Konfederazioan (CIDOB) kide tutako elkargoek honako ekinbide hauek proposatzen dituzte:

#### **Indigenen gobernu-erakundeen mailako ekintzak:**

- ❖ Genero-ikuspegia txertatu baliabide legeetan eta dokumentu instituzionaletan berdintasunaren alde lan egiteko borondatea agerian ipintzeko. Esate baterako, Chacoko Herri Guarani Charaguaren Autonomia Estatutuak 34.13<sup>24</sup> artikuluan aitortzen du, hura egikaritzeko mekanismorik ezartzen ez badu ere.

Genero ikuspegidun aurrekontua txertatzeko, har liteke jarraibidetzat lehen aipatu ditugun emakume-antolakundeek landutako metodologia, behar izanez gero aholkularitza tekniko bilatuz eta beren mundu-ikuskerara eta komunitate mailan antolatzeko moduetara moldatuz.

- ❖ Komunitate indigenetako gizonen eta emakumeen egoerari buruzko berariazko diagnosiak lantzea, honako atal hauetan: partaidetza politikoa, eskubide ekonomikoak, produkzio- eta erreproduktzio-lana: rola eta bien ala bien zaintza, denboraren erabilpenari buruzko inkestak. Orain arte, ez dugu uste egin denik horrelako azterlanik.

Beharrezkoa da ildo horretako ikerlan gehiago egitea, bertako parametro soziokulturalak erabiliz eta genero-ikuspegia txertatuz. Komunitate indigenen egoeraren azterlanen bidez soilik agerraraz daitezke genero-ezberdintasunak, eta indartu daiteke emakumeen paperaren ikusgarritasuna beren komunitateetan, haietako bakoitzaren mundu-ikuskeraren arabera egun nagusi diren balio eta tradizio patriarkalen aldaketa bat zertu dadin, guztientzat bidezkoagoak izango diren gizarteetarantz aurrerabidean joateko.

- ❗ Gobernu indigena autonomoko langileentzako prestakuntza genero- eta ekonomia-gaietan eta genero ikuspegidun aurrekontuen gaietan. Helburua litzateke haiek gaitzea dokumentu teknikoen bidez egiaztatu eta aztertzeko (agian naturaltzat hartzen diren) ezberdintasun horien egitatea, alegia horiei buruzko kontzientzia izan dezaten, genero-arraildurak murrizteko konpromisoa har dezaten.

### Gizarte zibila

Politika publikoak eta haien aurrekontuak gai funtsezkoak dira edozein komunitatetan. Gizarte indigenak horren jakitun dira eta praktikara eraman nahi dute beren gobernamendua eta bizimodua beren lurraldeetan.

Baina, lehen aipatu dugun topaketan azaldu ziren hausnarketetan agerian geratzen den eran, emakumeek beren komunitateetan bizi duten diskriminazioa arazo larria da. Haien eskubideak bigarren mailan daude, eta haien papera oraindik ere esparru pribatura mugatzen da, eta horrela nekez egikaritu dezakete beren ahalduntzea eta eragintza politikoa.

Horregatik, OXFAMek, beste lankidetzak agentzia batzuekin batera, emakumeen produkzio-lana bultzatzen du beren komunitateetan, haien eskubide ekonomikoak indartzeko modua delakoan. Horrek suposatzen du emakumeak garapenean ildoko genero-ikuspuntua bat, une honetan beharrezkoa dena, albora utzi gabe generoa

garapenean ildoko ikuspegia kultura mailako egokitzapenekin, hau da, indigenen ikuspuntutik aztertuta generoa.

Halaz eta guztiz ere, egia izanik lan hori garrantzitsua dela, are garrantzitsuagoa da harantzago joan eta antropologia eta gizarte mailako ikerlanak proposatzea, herri indigenetako bakoitzean ematen diren genero-ezberdintasunak agerian ipintzeko, eta aurkezteko prestakuntza-proposamenak, iruditegia aldaraziko dutenak eta komunitateetan generoen rolei buruzko kultura tradizionalen eraginez emakumeen partaidetza politikoa mugatzen duten genero-estereotipoei buruzko aldaketak sustatuko dituztenak.

Adibidez, beharrezkoa litzateke denboraren erabilpenari buruzko inkestak egitea, kulturalki egokituta, bakoitzak bere komunitatean dituen rolak ikusarazi eta balioztatzeko. Eta bestalde, kontziliazio-mekanismoak eta -neurriak landu behar dira beren familia-ereduen baitan, gizonen inplikazioa handiagoa izan dadin horretan, hartara emakumeek denbora gehiago izango baitute prestatzeko eta bizimodu sozial aktiboagoa edukitzeko.

Lehen aipatu dugun emakume indigenen liderren topaketako gogoeta horietatik abiatuz azalduko ditut jarraian haiek proposatzen dituzten ekinbideak nork bere komunitatean duten eraginkortasuna handitzeko:

- **Emakumeen antolakundeak indartzea eskubideak eskatu ahal izateko eta horretarako erabil daitezkeen mekanismoek baliatzen jakiteko, esaterako, aurrekontu parte-hartzaileez eta genero ikuspegidunez.**
- **Aliantza estrategikoen bidez lan egitea emakume hiritarren, indigenen, laborarien eta afrikar jatorrikoen antolakundeen artean, elkarren artean dituzten ezberdintasunak gaindituz edo agian ezberdintasun horietan bilatuz beren eskubideen eskakizunen agenda bateratua lantzeko zio bat.**
- **Emakume gazte eta helduen arteko trukeak ikaskuntza bateratua sustatzeko eta, beharbada, ikuspegi-aldaketa erakar dezaketenak gazteek lekua, antolakunde indigenetan (kabildoetan) ordezkaritza izan dezaten, oraingoz oso gutxitan gertatzen dena, ohitura tradizionalak direla eta.**

Horretarako, garrantzitsua da formazio-prozesuak abiaraztea komunitateetan emakumeentzat eta gizonentzat genero ikuspegidun aurrekontuei buruz, beraien antolamendu-logikatik abiatuz, lurralde indigenetan baliabide publikoak erabili eta kudeatu ahal izateko funtsezko elementu moduan.

Gainera, hiru aldetatik diskriminaturik dauden emakume indigenentzat, emakume, indigena eta pobre diren heinean, premiazkoa da subjektu eskubidedun moduan ahalduentzea eta etengabe pertsonal guztiak lantzea. Hori guztia, formakuntza-prozesu etengabe baten baitan, eskubide ekonomikoak barnebildu beharko lirateke, antolakunde indigena mistoen barnean bultzatzeko eta emakumeenean bereziki sustatu behar da.

Bestalde, balio patriarkalen aldaketa bultzatu behar da komunitate horietako gizonen artean, eta genero-gaietan gaitu egin behar dira, sustatuz beren rolen ikuspuntu kritikoa nork bere komunitatearen baitako ezberdintasunaren eta emakumeenganako indarkeriaren aurka.

Dokumentu honek ikuspuntu kritikoa du gobernuekiko eta politikagintzarekiko, eta haien erantzukizunarekiko, ezberdintasuna dela eta egiten diren aurrerapen eta atzerapausoen aurrean. Horregatik, azpimarratzen du genero-ikuspuntuaren aplikazioa lanabes politiko zehatza bailitza, aurrekontu publikoetan, ezberdinkeria globalari ezinbestean itsatsita dagoen genero-ezberdintasunari aurre egiteko.

Laburbilduz, testu hau ez da dokumentu tekniko berria, eta ez du inolako metodologia berririk proposatzen, baizik eta bi testuinguruetan bildutako esperientzien ekarpena jaso eta zabaltu nahi du, haietako bakoitzean egin den lanak aitortuz, alderdi positiboak azpimarratuz eta argituz beste zenbait alor, aplikaturiko metodologian garatzeke geratu direnak, haietako bakoitzetik eratortzen diren proposamen berriak aurkeztuz, gogoeta-bide izan daitezen eta ildo horretan aurrera egiteko lagungarri.

Azkenik, esan nahi dut generoak, azterketa politikorako kategoriatzat hartuta hemen, gobernagarritasun autonomoko prozesuak gainditu behar dituela, bere oinarrietatik barneratuz patriarkatuak sorrarazten



dituen ezberdintasunak erauzteko mekanismoak, ondo bizitzearen esanahi eta garapen sakonaren bilaketan, eta ezarritako sistemaren ezberdintasunen gainera aurrera egiten duten herritarren garabidean hezurmamituta, gizarte justu eta solidarioagoen helburuak eraginda.



© Oxfam Intermón

## NOTAK

<sup>1</sup> Gobernuaren erauzketa-politikari buruzko argibide gehiagorako, gomendatzen dut berrikustea Erauzketa-industrien urteko txostena, 2014an CEDLak egin zuena OXFAMen lankidetzarekin.

<sup>2</sup> 2006-2015 aldian zertu diren partaidetasun-sentipenen aldaketei eta sortu diren identitate berriei buruzko argibide gehiagorako, ikus PNUDen giza garapeneko Boliviako txostenak (2010) eta (2015).

<sup>3</sup> 2016an OXFAMek mundu mailan abiarazi zuen kanpaina horren xedea da kontzientzia ereitea munduan jazotzen diren hainbat ezberdintasunei buruz eta haien zergatien inguruan. Ekinbide horri buruzko argibide gehiago lor daiteke esteka honetan: <https://www.oxfam.org/es/campanas/iguales> (azken kontsulta, 2017ko ekainaren 7an egin).

<sup>4</sup> Hemen aipatzen dudak dokumentua da: Andia Perez, B. eta Beltran Barco. (2003): Documento metodológico sobre el análisis del presupuesto público con enfoque de género: Sistematización de las experiencias en la Región Andina. UNIFEM. Quito.

<sup>5</sup> Ekintza hau, IFFIrekin lankidetzan Cochabamban landutako proiektu honen baitan dago: Proiektua: Fortalecimiento de la gobernabilidad democrática local: iniciativa de PSGs en Bolivia. UNIFEM – UNV - AECI – IFFI eta MNT-PSG. Webean ikus daiteke helbide honetan:

<http://presupuestoygenero.net/Herramientas/H001fZabalagaBOL.pdf>

<sup>6</sup> Azpimarragarria da 21. puntua, urteko programa operatiboak egiteko eta herrialdeko udalerrientzako aurrekontuak formulatzeko Ogasun Ministerioak argitaratutako berariazko zuzentarauen barnean.

<sup>7</sup> Honetan Zabalagak aipatzen du genero-estatistiken metodologia, Birgita Herdam-ek proposatu zuena eta bibliografian jasota dagoena. Webean ikus daiteke helbide honetan:

[http://iknowpolitics.org/sites/default/files/doc\\_647\\_estadisticas\\_genero\\_herramienta\\_p\\_cambio.pdf](http://iknowpolitics.org/sites/default/files/doc_647_estadisticas_genero_herramienta_p_cambio.pdf)

<sup>8</sup> II. kapitulua: Biolentzia jasaten ari diren emakumeenganako arreta. 24. Artikuluak dio: udal bakoitzaren urteko aurrekontuekin antolatu, koordinatu eta indartuko dira ekimen eta arreta zerbitzuak, tartean Udal Lege Zerbitzu Orokorrak eta Harrera zein behin-behineko aterpe-etxeak. Zerbitzuok eskaini behar duten arreta lehentasunezko, etengabea, espezializatua eta alor anitzeko izango da. Estatuaren bermerako sail guztiekin batera egingo dute lan, bereziki Boliviako polizia, Epai Nagusia eta Osasun erakundeekin

<sup>9</sup> Zerga Politika eta Garapenari buruzko Lantaldea (GPFD) gizarte zibilaren ekimen bat da hainbat eragileren artean osatua: GKE, nazioarteko lankidetzak-

erakundeak eta ikerketa-zentroak. Argibide gehiago jaso dezakezu ondorengo web-orrialde honetan: <http://cedla.org/blog/grupopolitica/fiscal/pagina-ejemplo#sthash.PwUyktiE.dpuf>

10 Emakumeei Biolentziarik gabeko bizitza bermatzeko Lege orokorra. Web gune honetan irakurgai: <http://www.sipi.siteal.iipe.unesco.org/normativas/599/ley-no-348-2013-ley-integral-para-garantizar-las-mujeres-una-vida-libre-de-violencia>.

11 Hemendik aterata: *Presupuestos públicos con enfoque de género. Una aproximación metodológica para el presupuesto nacional de Bolivia y el presupuesto del municipio de La Paz.*

12 Iturria: Ekonomia eta Finantza Publikoen Ministeriotik ateratakoa. 2015

13 SEA (Gai Autonomikoen, Ekonomikoen eta Finantzarioen Zuzendaritza). Ekonomia eta Ogasun Publikoaren Ministerioa) 2014.

14 Ikuska daiteke argitalpen honetan: Contribución de la inversión pública 2015 de gobernaciones y municipios (113. or. eta ondorengoak).

15 Aipatzen ari naiz lege horren III. epigrafeko 5., 102., 114. eta 130. artikulua.

16 Jatorrizko indigena laborarien autonomia bat eratzeko hamar mila biztanle edo gehiagoko populazioa barnebidu behar da goi-lurraldeetako herri indigenen kasuan, eta mila lagun edo gehiagokoa behealdeko lurraldeetan (56-58 artikulua).

17 Berariaz aipatu nahi dut NBERen Adierazpena, Herri Indigenen Eskubideei buruzkoa, 2007ko irailaren 17koa, kide diren estatuentzat loteslea dena. Funtsean, Adierazpen horrek debekatzen du herri indigenen aurkako diskriminazioa, eta sustatzen du haien parte-hartze osoa eta eraginkorra dagozkien gai guztietan, eta aldi berean berresten du ezberdinak izaten jarraitzeko eta garapen ekonomiko eta sozialerako duten ikuspegi berezitua bilatzeko eskubidea.

18 Boliviak 1991ko abenduaren 11n berretsi zuen 169. Hitzarmena, eta indarrean dago egun ere.

19 Raquel Coellok eta Silvia Fernándezek CEDLArekin lankidetzan eta OXFAMek finantzatuta zerga-politika eta genero-ekitateari buruzko azterketa da aipatzen duguna.

20 Metodologia hori ikuska daiteke honako esteka honetan:

[http://www.juntadeandalucia.es/haciendayadministracionpublica/planif\\_presup/gen/ero/genero\\_andalucia.htm](http://www.juntadeandalucia.es/haciendayadministracionpublica/planif_presup/gen/ero/genero_andalucia.htm).

<sup>21</sup> Idazlan tekniko guztiak honako web-orri honetan aurki daitezke:

[http://www.donostia.eus/info/ciudadano/igualdad\\_plan.nsf/vowebContenidosId/NT0000099E?OpenDocument&idioma=cas&id=A374066376363&doc=D](http://www.donostia.eus/info/ciudadano/igualdad_plan.nsf/vowebContenidosId/NT0000099E?OpenDocument&idioma=cas&id=A374066376363&doc=D)

<sup>22</sup> Bikoteentzat jaiotza eta adopziogatiko baimen berdin eta besterenezinen aldeko ekimen hau garabidean dago Estatu espainolean. Informazio osoa web-orri honetan ikus daiteke: <http://igualeseintransferibles.org/>. Azkenekoz ikuskatua 2017ko ekainaren 19an.

<sup>23</sup> Aipatzen ari naiz Boliviako Chaco eta Amazoniako errealitateetan emakumeek duten partaidetza politikoari eta produktiboari buruzko esperientzia-trukaketa liderrekin, 2016ko martxoan La Pazen egin zena. Bertan parte hartu zuten emakume indigenen hainbat antolakundek, adibidez, CENAMIB-Boliviako Emakume Indigenen Konfederazio Nazionalak, eta Amazoniako Kabineñoen Erakunde Indigenak (OICA), eta baita CERDET, CIJCA, CEDLA eta CEJIS erakundeek eta OXFAMeko teknikariek ere.

<sup>24</sup> II. Titulua, IV. Kapitulua, 34. ar 13: "Egituran bermatu gizon eta emakumeek aukera berberak izateko printzipioa.

## BIBLIOGRAFIA

Aguilar, Gloria (2003): Equidad de género en el modelo de gestión municipal participativa. Desarrollo democrático y participación ciudadana. USAID, Bolivia.

Arce Vargas, C. (2016): Una década de gobierno: ¿Construyendo el Vivir Bien o un capitalismo salvaje? Grupo sobre Política Fiscal y Desarrolloren aldizkaria (GPDF) 17 zen. CEDLA, La Paz.

Coello Cremades, Raquel. (2009): *Experiencias de Presupuestos con enfoque de Género en América latina. En Fórum de política Feminista. Feminismo ante la crisis*. XIX Taller de Política Feminista, Madrid. Valladolid y Granada. (pp. 107-115). Fórum de política Feminista. Madril.

Coello, R. y Fernández, Marta (2013): *Fiscalidad y equidad de género*. ONU MUJERES. CEDLA. Bolivia.

Comisión Económica para América Latina y el Caribe (2016); Panorama social de América Latina 2015. CEPAL. Santiago Txilekoa.

Convenio 169 sobre pueblos indígenas y tribales (1989). OIT. Nueva York.

Chumacero, Juan Pablo (2010): *Trece años de reforma agraria en Bolivia. Avances, dificultades y perspectivas*. En Juan Pablo Chumacero (Coord.), Reconfigurando territorios. Reforma agraria, control territorial y gobiernos indígenas en Bolivia (Informe 2009). (pp.11-38). La Paz. TIERRA Fundazioa.

Declaración de derechos de los Pueblos Indígenas (2007). ONU. Nueva York 2007.

Elson, Diane (2003): Iniciativas de Presupuestos Sensibles al Género: Dimensiones claves y ejemplos prácticos. En Villota Paloma, *Economía y Género: Macroeconomía, política fiscal y Liberalización. Análisis de su impacto sobre las mujeres*. Icaria, Bartzelona.

Falhu, Ana (2004): *Hacia la transparencia y la gobernabilidad con equidad: presupuestos sensibles al género en la Región Andina*. UNIFEM RA, Ecuador.

Fernández, Silvia (2009): Transversalidad de la igualdad de género en la planificación sectorial del desarrollo: Guía operativa. Bolivia:

Aukera berdinetarako ministeriordetza de Oportunidades eta UNIFEM-RA

Fernández, S. y Campos Larrazabal Susana (2016): *Contribución de la Inversión Pública 2015 de Gobernaciones y Municipios a la Igualdad de Género*. CENTRO DE LA MUJER GREGORIA APAZA (CPMGA) 2016. OXFAM ETA AUTONOMIEN MINISTERIOA.

Grupo Internacional de Trabajo sobre Asuntos Indígenas, IWGIA (2014): *CONVENIO 169 DE LA OIT: Los desafíos de su implementación en América Latina a 25 años de su aprobación*. Danimarka.

Gutiérrez, Martha (2010); *Construcción de presupuestos con equidad de género*. La Paz.

Hedman Birgitta, Perucci Francesca, Sundestronm Pehr (1999): *La experiencia Sueca en la elaboración estadística de género. Estadísticas de Género: Una herramienta para el cambio*. Statistics Sweden Publication Services Suedia.

Instituto Nacional de Estadística 2014-2015 INE. La Paz

López, R. Graciela (2015): *“Reflexiones feministas sobre política fiscal y desigualdades”*. Cuaderno de trabajo n 25. REMTE, La Paz.

OXFAM (2014): *Iguales: Acabemos con la desigualdad extrema. Es hora de cambiar las reglas*. Erresuma Batua, Oxfam.

Pazos Moran, María (2013); *Desiguales por ley: Políticas Publicas contra la Igualdad de Género*. Catarata, Madril.

Pérez Orozco, Amaia (2014): *Subversión feminista de la economía; aportes para un debate sobre un conflicto capital-vida*. Traficantes de Sueños. Madril.

REMTE (2016): *Desigualdad; Sin brechas*, aldizkaria, 19. zk. La Paz.

Stotsky, Janet G. (2005): *“Sesgos de género en los sistemas tributarios”* En Pazos, M: *Política Fiscal y género*. 41-62. or. Zerga lkerketen erakundea. Madril.

Zabalaga, Carmen (2004): *“Municipios y presupuestos sensibles al género: una aproximación al caso boliviano”*. Non: *Hacia la transparencia y gobernabilidad con equidad: Presupuestos sensibles al género en la Región Andina*. Ecuador: UNIFEM RA.



Sarean kontsultatu diren dokumentu teknikoak:

- ✓ Madrilgo Unibertsitate Konplutensea  
<https://www.ucm.es/icei/genero>
- ✓ Andaluziako Juntako Gobernua  
[http://www.juntadeandalucia.es/haciendayadministracionpublica/planif\\_presup/genero/genero\\_andalucia.htm](http://www.juntadeandalucia.es/haciendayadministracionpublica/planif_presup/genero/genero_andalucia.htm).
- ✓ Nazio Batuen web-orria: <http://presupuestosygenero.net>

© Oxfam Intermón, 2017ko iraila

Ikerlan hau Olga del Castillo Fernández generoaren eta nazioarteko lankidetzaren gaietako aholkulariak idatzi du.

Eztabaida publikoan garapen eta politika humanitarioko gaiak agerrarazteko idatzitako dokumentu eta txosten sailaren barnean dago.

Argitalpen hau autore-eskubideen babespean dago, baina bere edukia doan erabil daiteke eragina sustatzeko, kanpainak egiteko, hezkuntzarako eta ikerketarako, iturria bere osotasunean aitortzen denean. Autore-eskubideen jabeak eskatzen du era horretako erabilpen guztiak erregistra daitezela eragina balioztatu ahal izateko. Bestelako edozein abagunetan, beste argitalpen batzuetan berrerabiltzeko edo itzuli edo moldatzeko, baimena eskatu behar da eta ordaintzapekoa izan daiteke. Helbide elektronikoa: [info@oxfamintemon.org](mailto:info@oxfamintemon.org).

## OXFAM INTERMÓN

Pertsona konprometituek eta injustiziak sorrarazitako ezberdintasunen aurkako konponbide eraginkorrak asmatzen eta aplikatzen adituak diren erakundeek osatzen duten nazioarteko sarea osatzen dugu, eta 90 herrialde baino gehiagotan gaude.

1956az geroztik, pertsona erdeinatuei laguntzen diegu, halakoei lanabesak emanaz beraiek izan daitezen aldaketak lantzen dituztenak, ez soilik beraientzat baita beren ingurumenerako ere, beren eskubideak eta etorkizuneko belaunaldienak babestuz.

Injustiziaren eta pobreziaaren aurkako aldaketa-sarea gara, eta zuk ere gurekin bat egiten baduzu mundu mailako aldaketak egiteko aukera biderkatuko duzu.

BIZITZAK ALDATUZ BIZITZAK ALDARAZTEN DITUGU.

